ikus pegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar y Diversidad

BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

2019

AURKIBIDEA

Sarrera 3

Fitxa teknikoa 4

1. Jatorri atzerritara duten pertsonen etorrera 5
2. Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak 19
3. Eskubide eta zerbitzuak 36
4. Bizikidetza-ereduak eta harremanetarako espazioak 54
5. Kultura-ereduak 82
6. Estereotipoak 97
7. Immigrazio-politika 112
8. Tolerantzia-indizea 120
9. Ondorioak 136

Eranskina: galdetegia 140

Sarrera

Hona hemen Barometroa 2019: jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. Txosten honek hamar gai nagusi ditu ardatz: etorkinen presentzia eta bolumena, euskal gizartean hautemandako ondorioak, eskubide eta zerbitzuak, bizikidetza-ereduak eta harremanetarako espazioak, kultura-ereduak, sinpatia-maila, estereotipoak, immigrazio-politika, gizarte-laguntzak eta tolerantzia-indizea.

2019ko Barometroan eskuratutako emaitzak azken hiru urteetako emaitzen ildo beretik doaz, eta 2015ean abiatutako krisiosteko egoera finkatu egin dela erakusten dute. 2019ko Barometroa prestatzeko, egokia iruditu zaigu zenbait berrikuntza egitea.

- Aurten galdera berriak txertatu ditugu, jakiteko zer iritzi duten herritarrek gizarte-eskubideak eskuratzeko ahalmenari buruz edo zein den euskal biztanleen jarrera bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei buruz.

Fitxa teknikoa

- Landa-azterketaren data: 2019ko martxoa-apirila.
- Egindako inkestak: 600 (Konfiantza-maila = %95, Z = 1,96 eta errorea = %+/- 4).
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorakoei.
- “Esleipen proportzional” bidez estratifikatutako laginketa, habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin.
- Etxeen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- 39 laginketa-puntu 25 udalerritan (3 Araban, 10 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian).

1

Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera

a. Jatorri atzerritarreko pertsonen presentzia arazotzat hautematea
b. Jatorri atzerritarreko pertsonen bolumena nola hautematen den

A) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

ARAZO PERTSONALA	ARAZOA EAEn Bat-bateko erantzuna	ARAZOA EAEn Erantzun iradokia
%1,6	%2,4	%2,8
Aipamenak guztira %3,9	Aipamenak guztira %9,1	Aipamenak guztira %11,4

Bizikidetzari eragiten dion faktore nagusietako bat immigrazioaren fenomenoa arazotzat hautematea da. Lehen atal hau aztertzeko, lehenengo eta behin, Euskadin ditugun hiru arazo nagusiak zein diren galdetu eta bat-bateko erantzunak jaso ditugu. Gero, galdera bera egin dugu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda bat erakutsiz. Azkenik, galdera bera egin dugu hirugarrenez, baina immigrazioa arazo pertsonal gisa tratatuz.

Arazotzat hautematen al da immigrazioa EAEn? 2019ko Barometroak erakutsi digu, beste behin ere, euskal gizartearen gehiengoak ez duela arazo sozial ez pertsonaltzat hartzen etorkinen presentzia. Inkestatuen %9,1ek baino ez du bat-batean erantzun immigrazioa arazo bat dela, eta %3,9k du arazo pertsonaltzat. Immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa hazi egin da (%11,4) inkestatuei immigrazioa erantzun gisa iradoki zaienean.

2018ko datuekin alderatuta, zertxobait hazi da immigrazioa Euskadin dugun arazo nagusietako bat dela erantzun dutenen kopurua –bai bat-batean bai iradokita–, baina behera egin du arazo pertsonaltzat hartzen dutenen kopuruak. Euskal biztanleriaren kezka nagusiak arazo ekonomikoak –batik bat, langabezia– dira.

Bilakaera: Immigrazioa Euskadiko arazotzat hautematea (bat-bateko erantzuna, erantzun iradokia eta arazo pertsonala, %), 2007-2019





g1, g2, g25



2019ko Barometroak, beste behin ere, erakusten du euskal gizartearen gehiengoarentzat etorkinen presentzia ez dela gizarte-arazoa: hala, espontaneoki, galdeketa egindakoen %9,1ek adierazi du immigrazioa arazoa dela Euskadirako, eta %3,9k arazo gisa aipatu du maila pertsonalean. Iradokita, euskal biztanleen %11,4k aipatu du.

Azken urtean, zertxobait hazi da immigrazioa arazo gisa hautematea, bai espontaneoki (+1,4 puntu), bai iradokita (+3,2 puntu). Alabaina, zertxobait murriztu egin da immigrazioa arazo gisa hautematea modu pertsonalean (-0,6 puntu). Bilakaerari dagokionez, ikus dezakegu kezka handiagoa zela 2009-2014 artean eta jaitsi egin dela 2015-2019 artean; gainera, serie horren baitan, aurtengo 2019. urtean jaso da kezka pertsonal gutxien.

Euskadin ditugun arazo nagusiak (bat-bateko erantzuna, %)



g1

Erantzuna: immigrazioa



Lehen aipamenean, inkestatuen %2,4k hartu du immigrazioa Euskadin dugun arazo nagusitzat (bat-bateko erantzunak). Aldiz, aipamen guztiak kontuan hartuta (hiru arazo garrantzitsuenei buruz egin zaie galdeketa), %9,4k baino ez du uste immigrazioa Euskadin dugun arazo bat denik. Honako hauek dira gehien aipatutako arazoak: langabezia (%65,4), eta hortik oso urrun geratzen dira pentsioak (%22,3) eta arazo ekonomikoak (%22,2). Lehenbiziko hiru arazoak iazko berberak dira.

Euskadin ditugun arazo nagusien bilakaera (bat-bateko erantzuna, %)



Hauek dira, euskal gizartearen arabera, 2019an Euskadin ditugun arazo nagusiak: langabezia hein handi batean, eta pentsioak, arazo ekonomikoak eta enpleguarekin lotutako arazoak neurri txikiagoan.

Bilakaerari begiratuta, 2015. urtetik hona –hau da, krisialdi ekonomikoak eragin txikiena izan duen etapan–, langabeziak eta arazo ekonomikoek behera egin dute; pentsioek eta enpleguarekin lotutako arazoek, ordea, gora.

Euskadin ditugun arazo nagusiak (erantzun iradokia, %)



Erantzuna: immigrazioa



Galdera bera iradokizunen zerrenda bat –Eurostat– erakutsiz eginez gero, %2,8k soilik aukeratu du immigrazioa lehen aipamenean. Aldiz, aipamen guztiak kontuan hartuta (hiru arazo garrantzitsuenei buruz egin zaie galdeketa), %11,4rentzat da immigrazioa arazo bat Euskadin. Honako hauek dira gehien aipatutako arazoak: langabezia (%61,3), pentsioak (%39,3) eta prezioen igoera (%31,0).

2018ko Barometroarekin alderatuta, immigrazioa zertxobait igo da %8,2tik %11,4ra arazo iradoki gisa.

Hiru arazo pertsonal nagusiak



g25

Erantzuna: immigrazioa



Lehen aipamenean, %1,6k adierazi du immigrazioa arazo pertsonaltzat eta, aldiz, aipamen guztiei erreparatuz gero (hiru arazo garrantzitsuenei buruz egin zaie galdeketa), euskal biztanleriaren %3,9rentzat baino ez da immigrazioa arazo pertsonal bat. Eragin pertsonalari dagokionez, hauek dira gehien aipatutako arazoak: langabezia (%35,3), enpleguarekin lotutako arazoak (%26,4), pentsioak (%24,3) eta arazo ekonomikoak (%23,5).

2018ko datuekin alderatuta, zertxobait jaitsi da –%4,5etik %3,9ra– immigrazioa arazo pertsonaltzat dutenen ehunekoa.

Euskadin gaur egun dauden hiru arazo nagusiak

Arazo nagusiak Euskadin (**bat-bateko** erantzuna, %)



Arazo nagusiak Euskadin (erantzun **iradokia**, %)



Arazo **pertsonal** nagusiak (%)



g1, g2, g25

Euskal gizarteak oraindik ere uste du langabezia dela arazo nagusia, nahiz eta behera egin duen bat-bateko erantzun gisa, erantzun iradoki gisa, bai eta arazo pertsonal gisa ere.

B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

PERTZEPZIOA

Jatorri atzerritarreko biztanleria

%17,1

BALORAZIOA
Gehiegi dira
%21,1

ERREALITATEA

Jatorri atzerritarreko biztanleria

%10,0

BALORAZIOA
Gehiegi dira
%15,8

Atal honetan, euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonen bolumena nola hautematen duen aztertzen da. Gai esanguratsua da; izan ere, migrazioaren fenomenoaren pertzepzioa gaindimentsionatuta ote dagoen jakiteko aukera ematen du. Horrek eragina izan dezake migrazioaren aldeko edo aurkako jarreretan. Horretarako, euskal gizarteak biztanleria migratzailearen bolumenari buruz zer balorazio duen jasotzen da, bai EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen zifra erreala jakin aurretik duen balorazioa eta bai zifra hori jakin ondoren duena. Gainera galdetzen zaie ea datozen bost urteetan beren ustez Euskadira atzerritar jatorriko biztanleak iristen jarraituko duten, eta zein diren iritsiko direnen herritartasun nagusiak.

EAEko biztanle etorkinen bolumenari buruzko pertzepzioa errealitatearekiko independentea da eta bere horretan jarraitzen du etorkinen kopurua benetan dena baino bi aldiz gehiago den sentsazioak. Aurreko urteetan bezala, atzerritarrak gehiegi diren pertzepzioa murriztu egin da, datu errealaren berri izan ondoren.

Etorkizunean pentsatuz, hamarretik zazpi euskaldunek uste dute bost urtean igo egingo dela Euskadin atzerritar jatorriko biztanleria, eta uste dute magrebtarrak, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta latinoamerikarrak izango direla.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi aurretik (%), 2004, 2007-2019



g3

Euskal biztanleriaren erdiak baino gutxiagok uste du Euskadin bizi den atzerriko biztanle-kopurua handiegia edo nahikoa dela (%48,4). Pertzepzio horrek igoera txiki bat izan du azken urtean (+1,9 puntu); hala ere, serie osoko baxuenetakoa izaten jarraitzen du.

2012-2014 artean hazi egin zen EAEn bizi den atzerriko biztanle-kopurua handiegia edo nahikoa dela uste duen herritarren kopurua (2012an, “egokia” kategoria gaineratu genuen). Alabaina, zifra hori jaisten ari da 2015az geroztik, gorabehera txiki batzuekin bada ere: 2019. urtean %21,1ek uste du Euskadin etorkin gehiegi dagoela.

Euskadin erroldatutako atzerriko biztanleen ustezko kopurua eta kopuru erreala (%), 2007-2019



g4

2019ko Barometroaren emaitzek erakusten digute euskal gizartean gaindimentsionatuta dagoela EAEn bizi diren atzerritar biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioa.

2018 eta 2019 artean, Euskadin erroldatutako atzerritarrak 0,6 puntu hazi dira; aldiz, Euskadin bizi diren etorkinen kopuruaren pertzepzioak berdin eta aldaezin jarraitzen du, %17 inguruan. Bilakaerari dagokionez, egonkor samar mantendu da atzerritarren benetako portzentajearen (erroldatuak) eta pertzepzioaren arteko distantzia.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi ondoren (%), 2004, 2007-2019



Atzerriko biztanle-kopuruaren datu erreala jakinarazi ondoren, bolumenaren pertzepzioa aldatu egiten da: herritar gutxiagok uste dute kopuru hori handiegia edo nahikoa dela (%36,8), eta gehiagok pentsatzen dute EAEn bizi den atzerritar jatorriko biztanleen kopuru erreala egokia dela (%47,5).

2012-2014 geroztik hazi egin zen Euskadin atzerritar jatorriko biztanleen kopurua handiegia edo nahikoa dela uste dutenen ehunekoa. Hala ere, zifra horrek behera egin zuen 2015 eta 2016an, eta egonkor samar eutsi dio 2019ra arte.

Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez..?



g21

Euskal biztanleen erdiak baino gehiagok uste du datozen bost urteetan Euskadin hazi egingo dela immigrazioa (%73,9). Gainera, pertzepzio hori igo egin da azken urteetan (+6,4 puntu, aurreko urtearekin alderatuta); aitzitik, jaitsi egin da murriztu egingo dela edo berdin mantenduko dela uste duten pertsonen ehunekoa. Hortaz, horrek adierazten digu euskal gizartea ohituta dagoela gero eta etorkin gehiago egotearekin, bai eta onartzen ari dela fenomeno hori egiturazkoa dela.

Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena?



g22

Euskadira etorkinak iristen jarraituz gero zer jatorritakoak izango direla uste duten galdetutakoan, gehienek nagusiki magrebtarrak izango direla adierazi dute (%70,6), Saharaz hegoaldekoak gero (%57,6) eta latinoamerikarrak azkenik (%47,4).

Oso gutxik uste dute Estatu Batuetakoak eta Kanadakoak (%1,7) edo Europar Batasunekoak (%2,6) etorriko direnik.

2

Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak

a. Ekonomian
b. Hizkuntza- eta identitate-gaietan
c. Ongizatean

ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN

EKONOMIA	IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA	ONGIZATEA
Ondorio positiboak Ondorio negatiboak	Euskal identitatea Euskal abertzaletasunaren helburuak Euskararen garapena Euskararen erabilera	Ondorio positiboen/negatiboen pertzepzioa

Atal honetan, euskal gizartean eragin positibo zein negatiboa izan dezaketen immigrazioaren alderdiak aztertzen dira. Horretarako, inkestatutako pertsonei galdetu diegu zer ondorio dituen immigrazioak ekonomian, identitate- eta hizkuntza-gaietan eta ongizatean.

Ekonomiari dagokionez, ondorio positiboei (ekonomiak hobera egin du bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak edo langileak behar dituzten sektoreak bete direlako) zein negatiboei (soldatek behera eta langabeziak gora egin dute) buruz galdetu diegu. Identitate- eta hizkuntza-gaiei dagokienez, herritarrei galdetu diegu zer eragin izan dezakeen atzerriko immigrazioak euskal abertzaletasunaren helburuetan, euskal identitatean, eta euskararen garapenean eta erabileran.

Eta azkenik, immigrazioak euskal gizartearen gizarte-ongizatean zer ondorio positibo/negatibo dituen galdetu diegu.

ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN

EKONOMIA	IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA	ONGIZATEA
Ondorio positiboak Ondorio negatiboak	Euskal identitatea Euskal abertzaletasunaren helburuak Euskararen garapena Euskararen erabilera	Ondorio positiboen/negatiboen pertzepzioa

Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei dagokienez, 2019ko Barometroak erakusten du alderdi positiboen pertzepzioak hazten jarraitzen duela, 2015ean hasitako ildo beretik. Euskal gizartearen gehiengoak gero eta gutxiago onartzen ditu alderdi negatiboak (soldatek behera eta langabeziak gora egiten dute). Hortaz, aurten ere, iritzi-egoera horrek gaur egungo testuinguru ekonomiko hedakorra eta immigrazioarekin eta lan-merkatuarekin erlazionatutako jarrerak lotzen ditu.

Immigrazioak euskal gizartearen identitatean eta hizkuntzan dituen ondorioei dagokienez, datuek erakusten dute EAEn immigrazioaren fenomenoaren eztabaida soziala ez dela erlazionatzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida politikoarekin. Bereizketa horri esker, ez dira garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak sortzen herritarrengan. Alde horretatik, immigrazioaren ondorioen inguruko kezka identitate-gaiekin baino lotuagoa dago gai ekonomikoekin.

Azkenik, biztanleria immigranteak gure ongizate-estatuan duen ondorio positibo edo negatiboei buruz euskal gizarteak egiten duen balorazioari dagokionez, neutro edo anbibalente samarra da eta erdiko posizioetan kokatzen da. Alabaina, immigranteek egiten duten ekarpen globalaren ikuspegi zertxobait optimistagoa antzematen da, eta serie osoko datu positiboena da.

A) EKONOMIAN



g6a, g6c, g6e, g19j

Atzerritarren iritsierak dakartzan onura ekonomikoez eta lan-funtzionalitateaz jabetzen den euskal gizartearen ehunekoak gora egin du (10 puntu baino gehiago bi item horietan, 2018ko datuekin alderatuta).

Bestalde, zertxobait jaitsi da ondorio kaltegarritzat hartzen dutenen biztanleriaren portzentajea.

Horrenbestez, euskal gizarteak ez ditu etorkinak arazo ekonomikoen “erantzule” egiten (langabeziaren, enplegua murriztearen edo soldatak jaistearen erantzule, kasurako); baizik eta guztiz kontrakoa, gero eta gehiago balioesten du etorkinen ekarpen positiboa gure ekonomian.

A) EKONOMIAN

Ondorio positiboak



g6c, g6e

Ondorio negatiboak



g6a, g19j

Biztanleria immigrantea iristeak ekonomian izan ditzakeen ondorio positiboen bilakaera negatiboa izan zen 2004. eta 2014. urteen artean. Hala ere, urte horretatik aurrera, euskal biztanleria immigrazioaren eta hark ekonomian dituen ondorioen ikuspegi positiboagoa izaten hasi zen, eta onartu zuen ekonomiak hobera egiten duela immigrazioari esker, bertako biztanleriak nahi ez dituen lanpostuak betetzen baitira, baita immigranteak behar ditugula ere gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko.

Etorkinak etortzearen ondorio negatiboei (hala nola langabezia igotzea edo soldatak jaistea) eta haien bilakaerari dagokionez, esan daiteke gero eta gutxiago direla binomio hori onartzen dutenak, bereziki 2013-14tik aurrera.

ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko

2019







g6c

Lan-merkatuarekiko immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitaristak –hau da, immigranteak lan-merkatura ondo egokitzen direla dioenak– gainbehera nabarmena izan zuen krisiaren eraginez, eta, esate baterako, iritzi hori zutenen kopurua %72,0tik %30,5era jaitsi zen 2007. eta 2014. urteen artean. Dena den, gorabeherekin bada ere, 2015etik aurrera gora egin du immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitaristak, 2019an %65,3 izatera iritsi arte.

Etapaka aztertuz gero ikus daiteke 2004tik 2008ra bitartean 15,1 puntu egin zuela behera, eta are intentsitate handiagoz jarraitu zuela jaisten krisialdi ekonomikoaren garaian (-25,5 puntu). Hala ere, 2015az geroztik 23,1 puntu igo da gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko etorkinak behar ditugula uste dutenen ehunekoa.

ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako

2019







g6e

Antzeko zerbait gertatu da “etorkinei esker, ekonomiak hobera egin du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako” aukerarekin.

2004an, inkestatuen %63 ados zegoen baieztapen horrekin. Hamar urte geroago, zifra hori %32,8ra jaitsi zen, eta, data horretatik aurrera, berriz ere gora egin zuen, 2019an %60,0 izatera iritsi arte. Aitzitik, ideia horren aurka daudenen kopurua %40tik gorakoa izatetik (krisiaren eragin handieneko garaian) %20,7 izatera iritsi da 2019an. Laburbilduz, ematen du atzera berriz sendotzen ari dela immigrazioaren ideia funtzional eta utilitaristagoa, krisialdi ekonomikoaren aurretik nagusi zena.

ONDORIO NEGATIBOAK. Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du (%)

2019







Euskal gizarteak oraindik ere ez du uste etorkinen etorrerak soldaten zenbatekoan eragiten duenik.

Bilakaerari dagokionez, 2014. urtera arte, eta gorabehera txiki batzuekin bada ere, iritziak bitan banatuta egon ziren: etorkinak Euskadira bizitzera eta lan egitera etortzeak soldaten zenbatekoaren beherakada eragiten duela uste zutenak eta uste ez zutenak. Datuen arabera, 2015. urteaz geroztik gero eta jende gutxiagok uste du etorkinak etorri izana dela soldaten beherakadaren arrazoia.

ONDORIO NEGATIBOAK. Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar (%)

2019







Euskal biztanleriaren %45,8k ez ditu atzerriko etorkinen presentzia eta langabezia handiagoa lotzen. Ideia hori geroz eta gutxiago dago euskal gizartearen imajinarioan.

Etapaka aztertuz gero, krisialdi ekonomiko betean (2010-2014) behera egin zuen immigrazioaren eta langabeziaren gorakadaren arteko loturak, eta beherakada hori are handiagoa izan da 2015etik 2018ra bitartean.

B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN



g23

Euskadin, immigrazioaren fenomenoari buruzko eztabaida soziala ez da erlazionatzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida politikoarekin. Bereizketa horri esker, ez dira immigrazioaren eta identitatearen arteko loturaren garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak sortzen herritarrengan.

Euskal herritarren gehiengo handi batek (%80,3) ez du uste atzerritar jatorriko biztanleria etortzeak euskal identitatea galtzen laguntzen duenik, eta %71,8k ere ez du uste euskal abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko dituenik.

Euskararen erabilerari eta garapenari dagokienez, datuak ildo beretik doaz: %71,8k ez du uste euskararen garapena geldiarazten duenik, eta %66,8ek ez du uste gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskararen erabilera eta garapena murrizten laguntzen duenik.

B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN



Hizkuntza- eta identitate-gaiei loturiko pertzepzio negatiboak ez dira oso esanguratsuak, eta, oro har, murriztu egin dira azken urteotan.

Etorkin atzerritarrak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du

2019







g23a

Euskal gizarteak ez du uste atzerriko etorkinak etortzeak euskararen garapena geldiaraziko duenik.

2004tik gaur egunera arte, immigrazioak euskararen garapenean izan dezakeen eraginak kezka txikia eragin izan du, eta maila berean eutsi dio hainbat urtez.

Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da





Gauza bera gertatzen da gaur egun euskara nagusi den eremuetan atzerriko etorkinek izan dezaketen eraginaren kasuan: oso gutxi dira tesi horren aldekoak, eta ehunekoak nahiko berdin eutsi dio, gorabehera txikiekin bada ere, 2004tik gaur egunera arte.

Datuek erakusten dute adostasun-maila oso txikia dela 2004. urtetik gaur egunera arteko etapa guztietan: 2004-2008 tartean nahiko egonkor eutsi zion (+0,4 puntu), baina 2009-2014 tartean nabarmen egun zuen behera (-11,4 puntu), gero, 2015-2019 tartean berriz ere egonkortu den arte baieztapen horrekin ados daudenen ehunekoa, %20ren azpitik.

Euskal nortasuna galtzea ekarriko du





Euskal biztanleriaren gehiengoak (%80,3) ez du uste immigrante atzerritarrak etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko duenik.

Bilakaerari erreparatuz gero, pertzepzio horrek ez zion hazteari utzi 2010etik 2016ra arte, eta, gorabeheraren batekin bada ere, egonkor eutsi dio azken lau urteetan.

Geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak

2019







g23d

Euskal gizartearen gehiengoak ez du uste immigrante atzerritarrak etortzeak euskal abertzaletasunaren helburuak geldiarazten lagun dezakeenik (%71,8).

2004tik gaur egunera arte, oso gutxi dira uste dutenak immigrante atzerritarrak etortzea eta euskal abertzaletasunaren helburuen atzerakada lotuta daudela (%14,5 2019an).

Aztertutako hiru etapetan ikus daitekeenez, pertzepzio hori dutenen kopurua murriztuz joan zen krisialdi ekonomikoaren aurreko etapan eta krisialdi betean. Alabaina, 2015etik 2019ra pixka bat egin du gora.

C) ONGIZATEAN

Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboen pertzepzioa
0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)



g26

Datuek erakusten dutenez, etorkinek euskal gizartean egiten duten ekarpen orokorrari buruz gero eta ikuspegi positiboagoa ari da hedatzen. Hain zuzen, azken lau urteetan, gehiago dira ondorio positiboak dituztela uste dutenak, aurkakoa pentsatzen dutenak baino.

Datuen bilakaera aztertuz gero, ordea, oso antzeko puntuazioa mantentzen da, gorabehera gutxirekin; horrek erakusten du euskal biztanleria anbibalentea dela immigrazioaren ondorioekiko. Halaber, joera zertxobait goranzkoa 2015. urteaz geroztik.

Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek (%)





Euskal gizartearen %66,4k uste du immigrazioak eragin positiboa izan dezakeela EAEko eta Europako biztanleriaren hazkundean; %10,1ek baino ez dio kontrakoa irizten.

Bilakaerari begiratuta ikus daiteke 2010etik 2013ra bitartean pertzepzio horrek nahiko egonkor eutsi ziola. Alabaina, 2014. urtean nabarmen egin zuen behera, baina, ordutik hona, gorabehera txikiekin bada ere, gora egin du.

3

Eskubide eta zerbitzuak

ESKUBIDE ETA ZERBITZUAK

ESKUBIDE ETA ZERBITZUAK		HEZIKETA
Hezkuntza	Babes Ofizialeko Etxebizitza	Euskarako eskolak
Osasun-zerbitzua	Zerbitzu juridikoa	Gaztelaniako eskolak
Senide gertukoenak ekartzea	Gizarte-laguntzak	Lanbide-heziketa
	Bozkatzeko eskubidea	Jatorrizko hizkuntzako eskolak

Euskal gizarteak uste du etorkinek bertako biztanleriaren eskubide eta zerbitzu berberak izan behar dituztela. Oro har, euskal gizarteak jarraitzen du pentsatzen EAEn bizi diren etorkinek, eskubide eta zerbitzuak izateko, legezko egoera administratiboan egon behar dutela. Alabaina, herritarrek uste dute neurri handiago batean hezkuntza eta osasuna eskubide unibertsalak direla, eta, beraz, den-denok izan behar ditugula, edozein delarik ere egoera administratiboa.

Testuinguru sozioekonomikoak baldintzatu du nork izan behar dituen eskubide eta zerbitzuak –denek edo legez daudenek bakarrik– eta zer bilakaera izan duten herritarren erantzunek urteotan. Horiek horrela, krisialdi ekonomikoak gogorren jo zuen garaian, hazi egin zen eskubide eta zerbitzuak izatea legezko egoera administratiboan egotearekin lotzen zutenen ehunekoa. Azken urte honetan, “eskubideak eta zerbitzuak izatea” eta “legez egotea” binomioa zertxobait hazi da, batik bat unibertsalagotzat jotzen diren eskubideen kasuan, hala nola osasuna eta hezkuntza.

Horrekin batera, era berean behera egin du heziketari lotutako eskubideak denek izatearen pertzepzioak, hala nola euskarako eta gaztelaniako eskolak, lanbide-heziketako ikastaroak eta jatorrizko hizkuntzako eskolak.

Lehentasuna eskubideei heltzerakoan (%)



g17

Euskal biztanleriaren gehiengoak (%62,2) uste du guztiok, edozein delarik bakoitzaren jatorria, izan behar ditugula betebehar eta eskubide berberak, hala nola osasun-zerbitzua, gizarte-laguntzak edo babes ofizialeko etxebizitzak izatea.

Nolanahi ere, %35,8k deritzo eskubide hori izaterakoan, lehentasuna izan behar duela bertako biztanleriak atzerriko etorkinen aurretik.

Eskubideei heltzea eta egoera administratiboa (%)



g15

Etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu eskuratzearekin lotuta, bertako biztanleriaren iritzia desberdina da eskubide edo zerbitzu motaren arabera.

Euskal gizartearen gehiengoak uste du unibertsalak direla hezkuntza (%70,0) eta osasuna (%61,0), eta, beraz, eskubide horiek etorkin guztiek izan beharko lituzketela, haien egoera erregularra izan edo ez izan.

Nolanahi ere, beste eskubide batzuk aipatutakoan (laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, berrelkartzea, babes ofizialeko etxebizitzak edo botoa emateko eskubidea), euskal biztanleen gehiengoa eskubide horiek murriztearen aldekoa da, eta administrazio-egoera erregularrean daudenek soilik izatea.

Eskubide eta zerbitzuak izatea



g15

2004. eta 2018. urteen artean, euskal gizartearen iritzian eragin handia izan zuen krisialdi ekonomikoak, baina baita zenbait erabaki politikok ere. Horren ondorioz, 2012an murriztu egin zen zenbait eskubidek eta zerbitzuk –hala nola hezkuntzak eta osasunak– unibertsalak izan behar dutela uste zutenen ehunekoa.

Azken urte honetan, 2018. urtearekin alderatuta, berriz ere behera egin du, oro har, eskubide eta zerbitzu horien unibertsaltasuna defendatzen dutenen ehunekoak.

Osasun-zerbitzua (%)





g15b

2004tik 2019ra bitartean zenbait fase bereizten dira: aurrenekoan, goraldi ekonomikoaren etapari lotutakoan, osasun-zerbitzua eskubide unibertsaltzat hartzen dutenen ehunekoak gora egin zuen, 2011ra arte. 2012an behera egin zuen eskubide hori denek izan behar dutela uste dutenen ehunekoak, eta osasun-zerbitzua eta legezko egoera administratiboa lotzen dituztenen ehunekoak, berriz, gora egin zuen. 2017az geroztik, osasun-zerbitzua eskubide unibertsaltzat hartzen dutenen ehunekoak gora egin zueneko aldiaren ondoren, pertzepzio horrek behera egin du, batetik, eta bestetik, osasun-zerbitzua eta legezko egoera administratiboa lotuak daudela deritzotenen kopuruak gora egin du.

2019az geroztik, osasun-zerbitzua eskubide unibertsaltzat hartzen dutenen ehunekoak behera egin duela nabaritu da.

Hezkuntza (%)







Euskal gizartearen gehiengoak (%70,0) eskubide unibertsaltzat hartzen du hezkuntza. Osasun-zerbitzua izateko eskubidearen kasuan bezala, pertzepzio horrek behera egin du 2018az geroztik
(-11,7 puntu).

2004az geroztik, eskubide unibertsala dela uste dutenen ehunekoak oro har goranzko joera izan du (beherakadaren bat izan arren 2009an, 2012an eta azken urte honetan).

Gizarte-laguntzak: DBSE, GLL... (%)





g15c

Euskal gizartearen gehiengoak uste du gizarte-laguntzak legez dauden etorkinek bakarrik jaso behar dituztela (%61,4).

Bilakaerari dagokionez, atzerritar jatorriko pertsona guzti-guztiek –edozein dela ere haien egoera administratiboa– gizarte-laguntzak izatearen aldeko jarreraren joerak beheranzko joera izan zuen 2004. eta 2014. urteen artean; alabaina, joera hori egonkortu egin da 2015-2019 bitartean (%30aren inguruan).

Babes ofizialeko etxebizitza (%)







g15d

Euskal herritarren gehiengoak (%67,8) uste du legezko egoeran dauden etorkinek soilik izan beharko luketela babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea, eta %22,0k uste du denek eduki beharko luketela.

2004tik 2019ra bitartean, 11,1 puntu hazi da eskubide hori legez dauden etorkinei baino onartu behar ez zaiela uste dutenen ehunekoa.

Senide gertukoenak ekartzea (%)





g15e



Ia bost euskal herritarretatik batek (%19,5) uste du etorkin guzti-guztiek izan behar dutela senide gertukoenak ekartzeko eskubidea, edozein egoera administratibotan daudela ere.

Gehiengoaren ustez (%70,7), ordea, legez dauden etorkinek soilik izan behar dute eskubide hori. Azken urteotan hazi egin da hori uste dutenen kopurua (+5,7 puntu).

Bozkatzea (%)







g15f

Euskal herritarren gehiengoak (%71,5) uste du beti izan behar dutela bozkatzeko eskubidea legezko egoera administratiboan dauden etorkinek. Bestalde, %11,3k uste du etorkinek inolaz ere ez luketela eskubide hori izan beharko, eta %11,6k uste du denek izan beharko luketela.

Zerbitzu juridikoa (%)





g15g

Euskal gizartearen %35,1ek baino ez du uste zerbitzu juridikoa etorkin guztiek izan behar dutela, edozein dela ere haien egoera administratiboa.

Duela hamabost urte, herritarren erdiak baino gehiagok (%52,3 2004an) uste zuen denek izan behar dutela zerbitzu hori; 2019an, berriz, herritarren %35,1ek bano ez du iritzi hori.

Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)



Euskal herritarren erdiak baino gehiagok uste du etorkin guztiek izan behar luketela heziketa doan jasotzeko aukera, bai gaztelaniako eskolak (%60,2), bai euskarako eskolak (%56,2), bai lanbide-heziketako ikastaroak (%54,9). Herritarren %31,5ek baino ez du uste etorkinek jatorrizko hizkuntzako eskolak doan jaso beharko lituzketela.

Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)



g16

Bilakaerari begiratuta, euskal iritzi publikoa egoera ekonomikoaren erritmo berean aldatuz joan da. Hortaz, krisialdi ekonomikoa baino lehenagoko urteetan, euskal herritar gehiago zeuden etorkin guztiek zerbitzu horiek (gaztelaniako doako eskolak, euskarakoak, jatorrizko hizkuntzakoak eta lanbide-heziketako ikastaroak) izatearen alde. Alabaina, 2012an, krisialdi ekonomikoak Euskadin gogorren jo zuenean, behera egin zuen jarrera horren aldekoen kopuruak. Eta, 2013. eta 2018. urteen artean, krisialdiaren aurreko balioak berreskuratu eta gainditu ere egin dira. Edonola ere, 2019. urte honetan, zertxobait atzera egin du etorkin guztiek zerbitzu horiek izatearen alde jarrerak.

Gaztelaniako eskolak (%)







g16b

Euskal gizartearen gehiengoaren ustez, etorkin guztiek doan izan beharko lituzkete gaztelaniako eskolak (%60,2); zenbaitek uste dute legez daudenek bakarrik izan beharko lituzketela (%34,1); eta beste zenbaitek, inork ez lituzkeela izan beharko (%4,9).

Bilakaerari begiratuta, 2004tik 2019ra bitartean gora egin du etorkin guztiek gaztelaniako eskolak doan izan beharko lituzketela uste duen herritarren ehunekoak. Goranzko joera 2013az geroztik hasi zen.

Baina, etapa bakoitzeko bilakaerari erreparatuz gero, zenbait desberdintasun ikus daitezke: aurreneko etapetan (2004-2008 eta 2009-2014), behera egin zuen doako zerbitzu unibertsal bat izan behar duela uste dutenen ehunekoak (-15,2 eta -7 puntu, hurrenez hurren); 2015-2019 etapan, berriz, gehiago dira zerbitzu unibertsal bat izan behar duela uste dutenak (+12,6 puntu).

Euskarako eskolak (%)







g16c

Euskal herritarren gehiengoak (%56,2) uste du etorkin guztiek izan beharko lituzketela euskarako eskolak. Bestalde, %36,3ren iritziz, legez daudenek bakarrik jaso beharko lituzkete, edo inork ez (%7).

Bilakaerari dagokionez, bi fase ikus daitezke: aurrenekoan (2004-2008 eta 2009-2014) behera egin zuen etorkin guztiek euskarako eskolak doan izatearen aldekoen kopuruak; bigarrenean, (2015-2019) gora egin zuen, oro har, zerbitzu unibertsaltzat hartzen dutenen kopuruak (+11,3 puntu).

Beste behin ere, goranzko joera 2013an hasi zen, nahiz eta 2019. urte honetan, atzerakada handia izan duen.

Lanbide-heziketako ikastaroak (%)







g16a

Euskal herritarren gehiengoak uste du etorkinek doan izan beharko lituzketela lanbide-heziketako ikastaroak, edozein egoera administratibotan daudela ere (%54,9). Bestalde, %41,7k uste du legez daudenek bakarrik izan beharko lituzketela.

2004tik 2019ra bitartean, gora egin du lanbide-heziketako ikastaroak doan jasotzeko eskubideak unibertsala izan behar duela uste dutenen kopuruak (+16,5 puntu), nahiz eta 2018. urtearekin alderatuta 5 puntu baino gehiago jaitsi den.

Gainera, bi fase ikusten dira: aurrenekoan (2004-2008 eta 2009-2014) behera egin zuen denek ikastaroak doan izatearen aldekoen kopuruak; bigarren fasean (2015-2019), berriz, jarrera horrek berak gora egin zuen. Edonola ere, gai horretan ere, goranzko joera 2013an hazi zen.

Jatorrizko hizkuntzako eskolak (%)







g16d

Etorkinek jatorrizko hizkuntzako eskolak doan izateari dagokionez, euskal gizartea banatuta dago: batzuek uste dute etorkin guztiek izan beharko lituzketela (%31,5); beste batzuek, legezko egoeran daudenek izan beharko lituzketela (%24,2); eta beste batzuek, inork ez lituzkeela izan behar (%38,2).

Bilakaerari dagokionez, bi fase daude: aurrenekoan (2004-2008 eta 2009-2014), behera egin zuen denek jatorrizko hizkuntzako eskolak doan izatearen aldekoen kopuruak; bigarren fasean, zertxobait gora egin zuen zerbitzu hori denek jaso behar luketela uste dutenen ehunekoak. 2012. urteari erreparatuz gero, ohartuko gara inflexio-puntua izan zela, 2013az geroztik unibertsaltzat hartzen dutenen joera goranzkoa delako, nahiz eta 2019an 8 puntu baino gehiagoko atzerakada izan duen joera horrek.

4

Bizikidetza-ereduak eta harremanetarako espazioak

a. Bizikidetza-ereduak
b. Harremanetarako espazioak

A) BIZIKIDETZA-EREDUAK

Euskal gizartearen harremanen pertzepzioa	Bizikidetza-ereduak

Oro har, euskal gizarteak uste du etorkinekin duen harremana aurreko urteetan izandakoaren antzekoa dela.

Bizikidetza-ereduei eta aniztasunaren kudeaketari dagokionez, euskal gizarteak aniztasun kulturalarekiko zenbait jarrera positibo erakusten ditu, eta ez du uste, esate baterako, etorkinen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dutenik gure bizimodua (2019an, %60,0). Alabaina, gehienek uste dute (%77,5), hein handi batean, etorkinei dagokiela bizikidetza hobetzen ahalegintzea, %25,3ri bakarrik iruditzen zaio bertakoei dagokiela, eta, askoren iritziz (%74,3), etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete.

Euskal gizarteak oraindik ere kultura anitzeko gizarte bat nahi du, baina asimilazioaren aldeko orientazio argi batekin. Aniztasuna eta hark dakarren aberastasuna onartzen dira, baina gehiengoak uste du bizikidetzaren aldeko ahalegina, denoi dagokigun arren, batez ere etorkinek egin behar dutela; “asimilazionismo leuna” edo “pixkanakako asimilazionismoa” deritzona, alegia.

Azken urtean gero eta gehiago dira uste dutenak etorkinek bizitza kulturala aberasten dutela, baina, aldi berean, gero eta gehiago dira pentsatzen dutenak hobe dela harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea, edo guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.

Udalerriko edo auzoko bizikidetza-giroa eta harremanak

0tik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa



g7

Euskal herritarren artean bizikidetza-giroaren pertzepzioa hobetuz joan da 2014az geroztik, eta 2019an batez beste 6,16 puntuko balorazioa izan du.

Horrenbestez, euskal biztanleen eta atzerritarren arteko giroaren pertzepzio subjektiboa pixkanaka hobea dela esan daiteke.

Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da? (%)



g8

Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak duela urtebete bezalakoak direla pentsatzen dute gehienek (%68,5). Nolanahi ere, pixka bat gehiago dira txarrera egin dutela uste dutenak (%13,8) hobera egin dutela irizten diotenak baino (%12,8).

Bilakaerari dagokionez, harremanek txarrera egin dutela uste dutenen ehunekoak EAEn krisialdi ekonomikoak eragin handiena izan zuen garaian (2011-2012) jo zuen goia (%31,8). Etapaka aztertuz gero, zenbait desberdintasun ikus daitezke: aurrenekoan (2004-2008), hazi egin zen harremanek hobera egiten dutela uste dutenen ehunekoa; ikuspegi horrek behera egin zuen krisialdi ekonomikoaren garaian (2004-2014); eta azken etapan (2015-2019), berriz ere gora egin du, eta %70 inguruan egonkortu da.

Bizikidetza-ereduak. Balorazioa (%)



g19b, 19c, 19e, 19h

%84k dio euskal gizartearentzat hobe dela guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.

Bestalde, euskal gizartearen %65,8k uste du beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela.

Euskal herritarren erdiak baino gehiagok (%57,4) pentsatzen du hobe dela bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.

Eta, azkenik, gehiengoak (%60,0) ez du uste immigranteen erlijio-jarduerek gure bizimodua arriskuan jartzen dutenik.

Bizikidetza-ereduak. Balorazioa (%)









g19b, 19c, 19e, 19h

Esan daiteke 2004tik 2018ra bitartean, oro har, gora egin dutela bizikidetza-eredu asimilazionista (dekantazio bidez, ez inposaketa bidez) baten aldeko posizioek.

Ideia hori hala nola iritzi hauetan islatzen da: “hobe da guztiok ohitura eta usadio berberak izatea” eta “hobe da guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea”. Azken urteotan, gero eta gehiago dira baieztapen horien aldekoak.

Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea (%)







g19b

Euskal herritar gehienek uste dute euskal gizartearentzat hobe dela denok ohitura eta usadio berberak izatea (%57,4); ehuneko hori, gainera, 13,4 puntu igo da iazko urtearekin alderatuta.

Bilakaerari dagokionez, etapaka aztertuz gero, desberdintasun batzuk ikusten dira: 2004-2008 tartean, 4,5 puntu jaitsi zen jarrera horren aldekoen ehunekoa; 2009-2014 eta 2015-2019 tarteetan, ohitura eta usadio berberak izatearen aldekoen ehunekoa 17,8 puntu eta 7,3 puntu hazi zen, hurrenez hurren.

Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (%) (*)





g19c

(*) 2004. eta 2007.-2011. urteetako Barometroetan: Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, hizkuntza bera hitz egitea.

Agerikoa dirudi euskal herritarrek Euskadiko hizkuntzen ezagutzan oinarritzen dutela bizikidetza multikulturala eta aniztasuna: hala uste du %84,0%k. Halaber, azken urte honetan, gora egin du (+14,5 puntu) hobe dela guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea dela uste duten euskal herritarren ehunekoak.

Immigranteen erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua (%)





g19e



Euskal gizartearen gehiengoak (%60,0) ez du uste immigranteen erlijio-jarduerek gure bizimodua arriskuan jartzen dutenik. Nolanahi ere, herritarren %23,2k horren susmoak dituela adierazi du.

Bilakaerari dagokionez, gorabehera txikiak egon badira ere, esan daiteke iritzi horren aldekoen kopuruak nahiko egonkor eutsi diola, zerra-hortz batzuekin bada ere. Etapaka aztertuz gero, bi fase nabarmentzen dira: lehengoan (2004-2008 eta 2009-2014) apur bat gora egin zuen; bigarrenean (2015-2019) 7,5 puntu jaitsi zen immigranteen erlijio-jarduerek gure bizimodua arriskuan jartzen dutela uste dutenen ehunekoa.

Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute (%)



g19h



Euskal herritar gehienen iritziz (%65,8), beste herrialde eta kultura batzuetako pertsonak etortzeak EAEko bizitza kulturala aberastu du; hau da, teorian, badirudi euskal gizartea beste kultura batzuetara irekita dagoela. Azken urtean gora egin du jarrera horrek (+3,4).

Bilakaerari dagokionez, 2004. eta 2008. urteen artean behera egin zuen immigranteek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela uste dutenen ehunekoak; krisiaren garaian ez zen ia aldaketarik gertatu; eta 2015. eta 2019. urteen arteko azken etapa honetan, gora egin du etorkinak eta aberastasun kulturala lotzen dituztenen ehunekoak.

Bizikidetza-ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%)



g19a, 19g, 19i, 19l

Euskal gizartearen gehiengoarentzat, a priori, bizikidetzarako ahaleginak partekatua izan behar du (%76,2).

Nolanahi ere, gehiengoaren iritziz, egokitzapen-ahaleginik handiena etorkinek egin behar dute (%77,5). Aldiz, oso gutxik uste dute ahalegin hori bertako biztanleek egin behar dutela (%25,3).

Era berean, gehiengoak uste du etorkinek albo batera utzi behar dituztela beren erlijio edo kulturako alderdiak, baldin eta “gure” legediarekin gatazkan badaude (%74,3).

Bizikidetza-ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%)









g19a, 19g, 19i, 19l

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke hazi egin dela guztiok ahalegindu behar dugula uste dutenen ehunekoa. Hala ere, jarrera horrek ez gaitu nahasi behar; izan ere, ahalegina nork egin behar duen zehaztean, gehienek uste dute etorkinek egin behar luketela eta gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar dietela.

Erabat onartuak izateko, **etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko** egin behar diete (%)

2019







Euskal herritarren beste jarrera batzuen ildo beretik, kasu honetan ere gehiengoak (%74,3) uste du, neurri handiagoan edo txikiagoan, erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar dietela.

2014az geroztik hazi egin da etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar dietela uste duten pertsonen ehunekoa.

Bizikidetza hobetzeko, **guztiok egin behar dugu ahalegin bat**, bai pertsona atzerritarrek, bai hemengoek ere (%)







Euskal gizarteak badaki zeinen garrantzitsua den guztiok ahalegin bat egitea, bai atzerritarrek bai hemengoek ere: %76,2k uste du, bizikidetza hobetu nahi bada, batzuek zein besteek ahalegindu behar dutela.

Dena den, ahalegina ez da modu simetrikoan egiten, etorkinak baitira integrazio-prozesuaren karga eraman behar dutenak, lehenago ikusi dugun moduan.

Euskadin bizikidetza hobetzeko, **immigranteak** gure ohiturak eta usadioak hartzen **ahalegindu** beharko lirateke (%)





Euskal biztanleen gehiengoarentzat, immigranteek gure ohiturak eta tradizioak bereganatzeko ahalegina egitea da bizikidetza ona eraikitzearen oinarria (%77,5).

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus dezakegu 2004 eta 2019 artean jarrera hori mantendu egin dela, zenbait aldakuntza txiki izan baditu ere. Iritzi hori oso finkatuta dago.

Euskadin bizikidetza hobetzeko, **hemengoek ahalegindu** beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen (%)





(*) 2007ko Barometroan: Euskadin bizikidetza hobetzeko, hemengoek gure ohitura eta usadio batzuei uko egin beharko genieke.

Ez dirudi euskal gizartea ohitura eta usadio berrietara moldatzeko prest dagoenik; “zer ikusi hura ikasi” esamoldea praktikan jartzearen alde dago, antza. Beste modu batera esanda, herritar gehienak (%59,1) ez daude ados beren ohitura, tradizio eta usadioak aldatzearekin.

2007tik 2019ra bitartean, gorabehera txiki batzuk egon badira ere, behera egin du ikuspegi horrekin ados zeuden pertsonen ehunekoak: 2007an %33 izatetik 2019an %25,3 izatera.

B) HARREMANETARAKO ESPAZIOAK

Etorkinen eta bertakoen ezaugarriak	Sinpatia-maila jatorrien arabera	Balizko bizikidetza eta harremanak	Islamarekiko sentimendua

Aurreko urteko datuekin alderatuta, euskal herritarrek begi hobeagoz ikusten dituzte etorkinen ezaugarriak, matxismoa izan ezik (okerrera egin du).

Euskal biztanleek begikotasun-maila handiagoa erakusten dute gertuen dauden jatorriekiko, bai kulturalki, politikoki zein sozialki; Europar Batasuneko herritarrekiko, kasu. Begikotasun-maila txikiagoa dago kulturalki urrunago dauden jatorriekiko, hala nola Maroko, Magreb edo Pakistan.

Era berean, Islamarekiko konfiantza-maila baxua da eta egonkor eutsi dio aurreko urtearekin alderatuta.

Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta?



g24

Bertako biztanleria eta etorkinena alderatzean, nortasun-ezaugarri estereotipatuei dagokienez, gehien-gehienek uste dute berdinak direla alderdi gehienetan (adeitsuak, arduratsuak, langileak eta solidarioak), matxismoari dagokionez izan ezik. Galdeketa egindako pertsonen %65,6k uste du etorkinak matxistagoak direla bertakoak baino.

Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta? Erantzun-aukera: Euskadikoak bezain….(%)



g24

Euskal gizarteak aztertutako ezaugarriei buruz duen ikuspegiak nahiko egonkor eutsi dio 2009tik gaur egunera arte.

Akaso, euskal gizarteak beste jatorrietako pertsonak ezagutzen dituen heinean, desberdintasun gutxiago ikusten dituela zehaztu genezake, matxismoari dagokionez izan ezik.

Adeitsuak (%)





g24a

Euskal gizarteak uste du atzerritarrak bertakoak bezain adeitsuak direla (%80,4), eta, jasotako datuen arabera, geroz eta desberdintasun gutxiago ditugu adeitasunari dagokionez. Azken urteetan, 2008tik 2019ra bitartean, 17,8 puntu hazi da ikuspegi hori dutenen ehunekoa.

Langileak (%)





g24b

Euskal biztanleriak uste du atzerriko pertsonak bertakoak bezain langileak direla (%69,7) eta gero eta antzekoagoak garela ezaugarri horri dagokionez.

2008. eta 2019. urteen artean gora egin zuen atzerritar jatorrikoak bertakoak bezain langileak direla uste dutenen ehunekoak. Etapaka erreparatuz gero, 2009-2014 artean 4,6 puntu igo zen jarrera hori, eta, aldiz, 2015. eta 2019. urteen artean, bere horretan eutsi zion.

Arduratsuak (%)





g24c

Arduratsu izateari dagokionez, euskal herritarrek uste dute atzerriko pertsonak bertakoak bezain arduratsuak direla (%71,6); azken hamaika urteetan (2008 -2019) 7,4 puntu hazi da ikuspegi hori dutenen ehunekoa.

Gorakada handieneko etapa 2009-2014 izan zen (+4,8 puntu); 2015-2019 tartean ehuneko horrek nahiko egonkor eutsi dio, 1,2 puntuko hazkunde txiki batekin.

Matxistak (%)





Kasu honetan, euskal herritarrek uste dute atzerriko pertsonak bertakoak baino matxistagoak direla (%65,6). Pertzepzio horrek gora egin du azken urte honetan (+5,8) eta krisialdiaren hasierako urteetako borneetara iritsi da berriz.

Etapei erreparatuz gero, ikus daiteke 2009. eta 2014. urteen artean 6,5 puntu jaitsi zela etorkinak matxistagoak direla uste dutenen ehunekoa; etapa horretan, bertan, gora egin zuen etorkinak bertakoak bezain matxistak direla uste dutenen ehunekoak (+13 puntu).

2015-2019 tartean murriztu egin da etorkinak bertakoak bezain matxistak direla diotenen ehunekoa (-9,9 puntu), eta gora egin du matxistagoak direla diotenenak (+7,2 puntu).

Solidarioak (%)





g24e

Euskal gizartearen gehiengoak uste du etorkinak bertakoak bezain solidarioak direla (%62,5). Ikuspegi hori nagusi da euskal gizartean, baina -5,5 puntu egin du behera 2008tik 2019ra bitartean, nahiz eta joera hori egonkortu egin den azken urteotan, %60-65aren inguruan.

Etapaka, 2009-2014 tartean +13,4 puntu hazi zen; 2015-2019 tartean, berriz, pixka bat egin zuen behera (-2,1 puntu).

Zintzoak (%)





g24f

Euskal herritarrek uste dute atzerriko pertsonak bertakoak bezain zintzoak direla (%73,9). Ikuspuntu hori dutenen ehunekoa 7,1 puntu hazi da 2008tik gaur egunera arte.

Etapaka, 2009-2014 tartean 9,8 puntu hazi zen etorkinak bertakoak bezain zintzoak direla uste dutenen ehunekoa, eta 2015-2019 tartean egonkor eutsi dio ehuneko horrek; 1,2 puntuko beherakada txiki bat baino ez du izan.

Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:
0tik (sinpatia eza) 10erako (sinpatia handia) eskala



Euskal biztanleek begikotasun-maila handiagoa erakusten dute antzekoenak diren jatorriekiko, kulturalki gertuen daudenekiko. Begikotasun handiagoa dute, antza denez, pertzepzioaren arabera integratuago dauden edo integratzeko gaitasun nahiz interes handiagoa duten kolektiboekiko.

Begikotasun-maila txikiagoa dago pakistandar, errumaniar eta magrebtar jatorriko pertsonekiko. Azken kolektibo horrek du, urtetik urtera, begikotasun-maila txikiena. Argi eta garbi, gure gizartetik kulturalki oso urrun dauden jatorriak dira, unibertso sinboliko oso bestelakoak eta urrunenak dituztenak.

Bilakaerari dagokionez, lehengo jatorri berberak dira oraindik ere begikotasun-maila handiena (Europako eta Argentinako biztanleak) eta txikiena (magrebtarrak) dutenak. Nolanahi ere, zertxobait hobetu egin da aztertutako jatorri desberdin guztiekiko begikotasun-maila.

BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK. Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen…



g14

Bertakoen eta etorkinen arteko balizko bizikidetzari eta harremanei dagokienez, tolerantzia-maila altuagoa da “etorkinekin lan egitea edo ikastea” edo “etorkin bat zure laneko nagusia izatea” egoerak proposatzen direnean. Aitzitik, tolerantzia-maila txikiagoa da “etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea” edo “zure seme-alabak etorkinen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea” egoeretan.

Islamarekiko sentimenduari dagokionez, EAEko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du 0tik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?



0 eta 10 arteko eskala batean (0 izanik konfiantzarik eza, eta 10 izanik konfiantza osoa), inkestari erantzun dioten pertsonek uste dute euskal gizarteak argi eta garbi mesfidantzaz begiratzen diola islamari: 2,77 puntu eman dizkio; puntuazio hori 2018kotik edo 2017kotik oso hurbil dago.

5

Kultura-ereduak

KULTURA-EREDUAK

Kultura-ereduei dagokienez, EAEko biztanleriak tolerantzia erakusten du zerbitzu bat eskaintzen duten eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikotzat edo folklorikotzat har daitezkeen alderdiekiko, hala nola immigranteek beren denda etnikoak, jatetxe exotikoak edo elikadura-dendak irekitzea.

Alderdi komertzial hori positibotzat hartzen da eta gizartearen gehiengoak onartu egiten du. Alabaina, tolerantzia txikiagoa da kultura-aniztasunak berezko dituen elementuei dagokienez; esate baterako, etorkinek beren ohitura eta usadioak adieraztea, beren jatorrizko hizkuntza hitz egitea, jatorrizko herrialdean bezala janztea, haien erlijioetako tenpluak eraikitzea edo beren irakaskuntza-zentroak izatea...

Etorkinen kultura-ereduekiko eta merkataritza-ekimenekiko tolerantzia-maila



g18

Aztertzen badugu zer tolerantzia-maila duen bertako biztanleriak etorkinak finkatzearen edo kultura-eredu batzuk mantentzearen ondorioz gertatu ohi diren egoera berriekiko, ikus dezakegu onarpen handiagoa dutenak saltokiak, jatetxeak eta elikadura-establezimenduak irekitzearekin lotutakoak direla.

Hori horrela, beste kultura batzuetako jatetxeak edo saltokiak irekitzearekin lotutako aniztasuna oso ondo baloratzen du euskal gizarteak.

Ikus daiteke gehiago hartzen direla kontuan kultura-alderdi exotiko eta azalenekoak, sakonagoak eta funtsezkoagoak direnak baino: beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea, beren jantziekin janztea edo beren irakaskuntza-zentroak izatea, adibidez.

Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera
(% “ondo iruditzen zait”)









g18a, 18b, 18d, 18h

2008tik 2019ra bitartean asko hobetu da kultura-eredu azalekoenekiko tolerantzia-maila; hau da, etorkinek beren jatetxe eta dendak irekitzearekin eta berariazko elikadura-dendak izatearekin lotuta daudenekiko. Beste kultura-eredu batzuekiko tolerantzia-mailak, hala nola haien artean beraien hizkuntza erabiltzea, hobera egin du urteekin, neurri txikiagoan bada ere.

Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera
(% “ondo iruditzen zait”)

Plaza eta espazio publikoak hartzea



Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea



Haien ikastetxe pribatuak izatea



Jatorrizko herrialdean bezala janztea



g18c, 18e, 18f, 18g

Euskal gizarteak begi onez ikusten ez dituen kultura-ereduei dagokienez (onarpenaren %40 baino gutxiago), nahiko egonkor eutsi diote hauek: haien erlijioetako tenpluak eraikitzea, haien ikastetxe pribatuak izatea eta jatorrizko herrialdean bezala janztea.

Haien dendak irekitzea (%)







Datuen bilakaerari erreparatuz gero, haien dendak irekitzearekiko tolerantzia-maila hazi egin da, eta 2008tik gaur egun arte 19,5 puntu igo da.

Etapaka, onarpen-maila altua bada ere, ikus daiteke krisialdi ekonomikoak gogorren jo zuen garaian (2009-2014) beherakada txiki bat izan zuela haien dendak irekitzearekiko onarpen-mailak; 2015-2019 tartean, berriz, hobera egin zuen (+7,0 puntu).

Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea (%)





g18h



Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea da euskal gizarteak ondoen onartutako etorkinen lekukotze-ereduetako bat.

2008. eta 2019. urteen artean hobetu egin da sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzearekiko tolerantzia-maila. Hala ere, etapaka aztertuz gero, joera desberdina izan da: 2009-2014 tartean tolerantzia-mailak behera egin zuen, eta 2015-2019 tartean, gora.

Berariazko elikadura-dendak izatea (%)







g18d

Euskal herritarrek tolerantzia-maila altuagoa dute materialistagoak diren kultura-ereduekiko, hala nola berariazko elikadura-dendak izatea.

Bilakaerari dagokionez, bi etapa ikusten dira: lehenengoan (2009-2014), krisialdi ekonomikoaren garaian, euskal gizartearen tolerantzia-mailak behera egin zuen (-14,2 puntu); bigarren etapan (2015-2019), krisialdia amaitzearekin batera, elikadura-dendak izatearekiko tolerantzia-mailak gora egin zuen (+9,4 puntu).

Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea (%)





Euskal herritarren gehiengoak begi onez ikusten du etorkinek haien artean beraien hizkuntza erabiltzea. Kultura-eredu horren onarpena zertxobait jaitsi da azken urte honetan (-5,8 puntu).

Nolanahi ere, bilakaerari erreparatuz gero, nahiko egonkor eutsi dio 2008az geroztik.

Jatorrizko herrialdean bezala janztea (%)







Kultura-eredu jakin batzuen muinera hurbiltzen gaituzten gaietan sakontzen goazen heinean, euskal gizartea jarrera polarizatuagoak erakusten hasten da. Esate baterako, etorkinak jatorrizko herrialdean bezala janzteari buruz galdetzean iritzi desberdinak jaso ditugu: batzuei ondo iruditzen zaie (%33,8), beste batzuei gaizki iruditzen zaie (%38,0) eta beste batzuei berdin zaie (%22,4).

Bilakaerari dagokionez, jatorrizko herrialdean bezala janztearekiko tolerantzia-mailak nabarmen egin zuen behera 2009-2014 tartean (-8,7 puntu), eta gora egin du 2015-2019 tartean (+2,9 puntu).

Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea (%)





Etorkinek beren erlijioetako tenpluak eraikitzeari dagokionez ere, euskal herritarren artean iritzi desberdinak jaso ditugu: batzuei ondo iruditzen zaie (%38,6), beste batzuei gaizki iruditzen zaie (%34,1) eta beste batzuei berdin zaie (%24,4).

Bilakaerari dagokionez, aldaketa handirik ikusi ez bada ere, esan daiteke 2009-2014 tartean tolerantzia-mailak behera egin zuela (-8,5 puntu) eta 2015-2019 tartean beherakada hori apalagoa izan dela (-1,4 puntu).

Haien ikastetxe pribatuak izatea (%)





Euskal gizartean tolerantzia-maila txikiagoa dago etorkinek beren ikastetxe pribatuak izatearekin lotutako kultura-ereduekiko. Horixe da euskal biztanleriak gutxien toleratzen duen ereduetako bat, nahiz eta gure ingurunean oraindik ez den halakorik gertatu.

2008. eta 2019. urteen artean gora egin du etorkinek beren ikastetxe pribatuak izatea gaizki iruditzen zaien pertsonen kopuruak.

Plaza eta espazio publikoak hartzea (%)





g18g



Euskal herritarren %48,8ri ondo iruditzen zaio etorkinek plaza eta espazio publikoak hartzea, %33,3ri berdin zaio, eta %15,2ri gaizki iruditzen zaio.

2008tik 2019ra bitartean, etorkinek plaza eta espazio publikoak hartzearekiko tolerantzia hazi egin da. Hobekuntza hori batez ere 2015az geroztik gertatu da; urte horretatik aurrera, askoz ere gehiago dira aldekoak kontrakoak baino.

Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAEra etortzeak besteko janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke

Kipa

Hijaba

Txadorra

Txilaba

Nikaba

Burka

Tunika



g13

Euskadira beste kultura eta erlijio batzuk iristeari dagokionez, euskal biztanleriari janzteko modu desberdinei buruz galdetutakoan, gehien-gehienei ez zaie egokia iruditzen burka janztea (%84,3), ezta nikaba ere (%80,1), aurpegia estaltzen duten jantziak biak. Txadorra jantzita eramatearen inguruan iritzi desberdinak badaude ere, gehiengoak (%56,2) ontzat ematen du.

Tunika, kipa eta hijabari dagokienez, ematen du herritarrek ez dutela eragozpenik: gehienei jantzi egokiak iruditzen zaizkie.

BILAKAERA. Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak



2017 eta 2019 artean, oro har, tolerantzia nabarmen handiagoa dago txadorrarekiko (+11,1 puntu), hijabarekiko (+8,5 puntu) eta kiparekiko (+8,4 puntu).

Aitzitik, nikabak 0,6 puntu galdu ditu iazko urtearekin alderatuta, eta burkak, berriz, 2,1 puntu.

6

Estereotipoak

ESTEREOTIPOAK

Atal honetan, euskal herritarren artean zabalduen dauden etorkinei buruzko estereotipoak aztertzen dira, praktikan, estereotipo horietako askok etorkinen integrazioa oztopatzen dute.

Presentzia handiena duten estereotipo eta aurreiritzien artean gizarte-laguntzekin lotutakoak nabarmentzen dira beste guztien gainetik. Zaila da estereotipo-multzo horri aurre egitea; izan ere, gizartean oso errotuta daude eta haien onarpen-egitura ia suntsiezina da.

Bilakaerari dagokionez, aztertutako estereotipo gehienak (hamalau guztira) indarra galtzen joan dira, batik bat, 2013az geroztik. Jaitsiera hori are nabarmenagoa izan da estereotipo jakin batzuen kasuan, hala nola “lana kentzen digute”, “atzerriko etorkinen presentziak langabezia handiagoa izatea dakar”, “jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, soldaten zenbatekoak behera egin du”, “immigrazioak handitu egiten du matxismoa eta genero-indarkeria”, “immigrazioak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu”, “zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino” eta “ez dute integratu nahi”.

Estereotipo eta zurrumurru nagusien sailkapena (ados/kontra, %)



g6a, 6b, 6g, 6h, 6i, 6j, 6k, 6l, 6m, 19d,19e, 19f, 19j, 19m

Gizartean dauden estereotipoen edo zurrumurruen aurrean posizioa hartzeko eskatu zaienean, ikusi da hauek direla euskal gizartean gehien errotutakoak: “babes-sistemaren onura jasotzen dutela” edo “matxismoa areagotzen duela”.

Alderantziz, hauek dira gutxien zabalduta daudenak: “arauak ezagutzen ez dituztela eta gizalegez jokatzen ez dutela pentsatzea”, “lana kentzen digutela” eta “espazio publikoak okupatzen dituztela uste izatea”.

Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik (%)







g19d

Etorkinek gizarte-babeseko sistemaren bidez onura gehiegi jasotzen dituztelako ustea 2018ko mailatik hurbil dago (%53,7t izatetik %53,3 izatera jaitsi da); hori da euskal gizartearen erdiak baino gehiagok uste duena.

Bilakaerari dagokionez, ikus daiteke azken bost urteotan ehunekoak hamar puntu baino gehiago egin duela behera, %64,6tik (2014) egungo %53,7ra.

Etapaka, esan daiteke estereotipo hori 2004-2008 artean sustraitu zela gehien; 2009-2014 artean zertxobait jaitsi zen (-3,9 puntu), eta hurrengo aldian (2015-2019), berriz, nahiko egonkor mantendu da (-0,5 puntu).

Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria (%)



g6i

Euskal herritarren artean badira uste dutenak immigrazioak handitu egiten dituela matxismoa eta genero-indarkeria (%40,4) eta badira kontrakoa uste dutenak (%40,9).

Bilakaerari dagokionez, interesgarria da nabarmentzea 2013-2019 tartean euskal gizartearen pertzepzioa lerratuz joan dela: estereotipo horren aldekoek 8,1 puntu galdu dituzte, eta, aldiz, kontrakoek 12,1 puntu.

Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu (%) (*)





g6g

(*) 2004. eta 2007.-2009. urteetako Barometroak: Oro har, atzerriko etorkinak iristeak eragin negatiboa du herritarren segurtasunean.

Euskal gizartearen iritzia gehien zatitzen duen zurrumurruetako bat herritarren segurtasunari loturik dago. Hala, herritarren %41,7k uste du etorkinek ez dutela ziurgabetasuna eta delinkuentzia eragiten; %37,4k, ordea, eragiten duela uste du.

Bilakaerari dagokionez, ikus dezakegu estereotipo horren sustraiek indar apur bat galdu dutela eta zurrumurru hori gezurtatzen dutenen kopuruak gora egin duela. 2016tik, gehiago dira baieztapen horrekin ados ez daudenak, ados daudenak baino.

Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino (%) (*)





g19f

"Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino" zurrumurruari dagokionez, euskal gizartea bananduta dago: %36,6 ados dago, %27,3 kontra dago eta %29,0k ez daki.

2010etik 2019ra bitarteko joerak erakusten du gero eta pertsona gutxiago dagoela ados eta gora egin duela baieztapen horren kontra daudenen kopuruak.

(*) 2004. eta 2007.-2009. urteetako Barometroak: Etorkinek zerga gehiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino.

Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte (%)





g6/

"Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzen dituzte" estereotipoaren kasuan, euskal herritar gehienak (%39,5) ez datoz bat, %33,5 ados dago eta %17,3 ez dago ez ados ez kontra.

Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak (%)





g6k

"Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak" estereotipoak bitan banatzen du euskal gizartea: ados daudenak eta aurka daudenak. Hala ere, gehiago dira zurrumurru horrekin bat ez datozenak (%45,6).

2016tik 2019ra bitartean posizioek nahiko egonkor eutsi diote.

Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila (%)





g6b

Euskal herritarren erdiak baino gehiagok (%56,5) ez du uste ikasle immigranteek jaitsi egiten dutenik eskoletako hezkuntza-maila; %25 baino ez dago ados zurrumurru horrekin.

2013-2019 bitartean gora egin du ikasle immigranteek eskoletako hezkuntza-maila jaisten ez dutela uste dutenen ehunekoak.

Immigranteek ez dute integratu nahi (%)





g6j

"Immigranteek ez dute integratu nahi" estereotipoari dagokionez, euskal gizartea zalantzati agertzen da, eta %33,2 ez dago ez ados ez aurka. Nolanahi ere, jarrera argia hartzen dutenen artean, gehiago dira aurka daudenak ados daudenak baino.

Azken urteotan (2013tik 2019ra bitartean), estereotipo horrekin ados dauden pertsonen taldea murriztu egin da (-10,8 puntu), eta bat ez datozenena hasi egin da (+12,4 puntu).

Immigranteen erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua (%)







g19e

Ez dirudi erlijioaren gaiak susmo txarrik eragiten duenik euskal herritarren artean; izan ere, gehiengo handiak (%60,0) ez du uste immigranteen erlijio-jarduerek gure bizimodua arriskuan jartzen dutenik, eta %23,2k nolabaiteko kezka du gai horren inguruan.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke, gorabeherekin bada ere, joera nahiko egonkorra dela.

Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte (%)



"Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte" estereotipoari dagokionez, hamarretik bi baino ez dago ados horrekin; eta argi dago gehiengoa ez dagoela ados (%56,8).

Immigranteek lana kentzen digute (%)



g6h

Euskal gizartea ez dator bat estereotipo honekin. Herritarren %66,2k ez du uste etorkinek lana kentzen digutenik, eta %17,6k baietz pentsatzen du.

2013. eta 2019. urteen artean behera egin du etorkinek lana kentzen digutela uste dutenen ehunekoak.

Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzen (%)



Estereotipo honek ez du presentziarik Euskadin. Herritarren %65,7k ez du uste etorkinek gizalegez jokatzen ez dutenik eta arauak betetzen ez dituztenik; %12,5ek, berriz, kontrakoa irizten dio.

Euskal gizartean gutxien errotuta dagoen estereotipoa da, eta aztertutako aldian indarra galtzen joan da.

7

Immigrazio-politika

a. Sartzea, bizitzen geratzea eta kanporatzea
b. Erregularizatu gabeko immigranteekiko politika
c. Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekiko politika
d. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko politika

IMMIGRAZIO-POLITIKA

Sartzea, bizitzen geratzea eta kanporatzea	Erregularizatu gabe dauden immigranteekiko politika	Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekiko politika	Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko politika

Atal hau immigrazio-politikari buruzkoa da, eta, euskal herritarren arabera, euskal erakundeak arduratu behar dira hartaz. Bertako biztanleei galdetu diegu zein den haien ustez immigrazio-politikarik egokiena, zer arrazoirengatik kanporatu beharko liratekeen etorkinak, edo zer politika ezarri beharko litzatekeen, batetik, babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, eta bestetik, aurten lehenengo aldiz, bidaiderik gabeko adingabeekin.

Oro har, euskal gizarteak immigrazio-politika eta immigranteen lan-egoera erlazionatzen jarraitzen du; horixe da galdetutakoen artean gehienek aukeratu dutena. Tesi horrek pisua irabazi du azken urte honetan beste aukera batzuen kalterako, hala nola legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonei sartzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak errefuxiatuak, etab.

Herrialdean sartu ondoren, lana galtzea ez da kanporatzeko arrazoitzat hartzen, baina bai delitu bat egitea. Gainera, oraindik ere lan-kontratu bat izatea hartzen da atzerritarrak erregularizatzeko oinarritzat. Beraz, lan-kontratua ezinbesteko baldintza bat da immigrazio “kontrolatu” bat izateko, eta komunikabideetan eta diskurtso sozialetan nagusi den irudia alde batera utzita; horretan, migrazio-fluxu masibo eta inkotrolatuak erakusten dira, “uholde” modukoak balira bezala.

Errefuxiatuen gaiak eragin sozial eta mediatiko handia izan du azkenaldian, eta euskal gizarteak, azken urteetan bezalaxe, jarrera irekia izaten jarraitzen du. Gauza bera esan daiteke bidaiderik gabeko adingabeei dagokienez.

A) SARTZEA, BIZITZEN GERATZEA ETA KANPORATZEA

Immigrazio-politika euskal herritarren arabera (%)



(*) 2007.-2011. urteetako Barometroetan: inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea; lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea; erabat debekatzea etorkin atzerritarrak sartzea

Euskal herritarren %20,1ek uste du ez dela inolako lege-oztoporik jarri behar etorkinen sarrera eragozteko. %73,3k sarrera baimenduko luke, baina baldintza hauekin: laneko kontratu bat izatea (%52,9) edo bestelako legezko betekizun batzuk betetzea (%20,4).

Azken urte honetan, lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztearen alde daudenen kopurua igotzen hasi dela nabaritu da, eta nolabait, immigrazioaren ikuspegi utilitarista islatzen du.

Aurreko urtearekin alderatuta, zertxobait igo da inolako lege-trabarik gabe sartzen uztearen alde dauden euskal herritarren ehunekoa.

Delinkuentzia, kanporatzeko arrazoia:
hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke (%)



g6f



Euskal herritarren %44,6rentzat delitu bat egitea etorkinak kanporatzeko arrazoi bat da, eta ehuneko hori 7,4 puntu jaitsi da 2018tik.

Bilakaerari dagokionez, krisialdi ekonomikoaren garaian eta krisialdiaren ostean gora egin zuen tesi honen aldekoen ehunekoak: 2,4 puntu 2009-2014 tartean. Eta behera egin du 2015-2019 tartean.

Langabezia, kanporatzeko arrazoia:

Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidaliko beharko lirateke (%)



Euskal herritarren gehiengo handiak (%74,1) ez du uste langabezian geratzen diren etorkinak kanporatu beharko liratekeenik. Galdera honetan jasotako erantzunen bilakaera egoera ekonomikoaren hobekuntzarekin dago lotuta.

Denboraldi batez langabezian geratzea kanporatzeko arrazoi bat dela uste dutenak oso gutxi dira, eta kopuru hori murriztuz joan da bai krisialdiaren aurreko garaian (2004-2008) bai krisialdi ekonomiko betean ere (2009-2014). Azken etapan (2015-2019), langabezian geratzea kanporatzeko arrazoitzat hartzen dutenen ehunekoa 12 puntu jaitsi da.

B) ERREGULARIZATU GABEKO IMMIGRANTEEKIKO POLITIKA

Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin?



g10



Oraindik ere, euskal gizarteak lotu egiten ditu lana eta egoera irregularrean dauden atzerritarren sarrera; hala biztanleen %49,7 lanen bat dutenen egoera erregularizatzearen (egoitza-baimena ematearen) alde dago. Lotura horren portzentajezko pisua zertxobait igo da 2018az geroztik (%44,3).

Halaber, mantendu egiten da egoera irregularrean dauden pertsona guztien egoera erregularizatzearen edo “paperak ematearen” alde daudenen ehunekoa (%24,7%). Ehuneko hori nahiko egonkorra izan da 2016tik hona, baina 7,5 puntuko igoera izan du 2015az geroztik.

C) BABESA EDO ASILOA ESKATZEN DUTEN PERTSONEKIKO POLITIKA

Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?





Errefuxiatuei harrera egitearen aldeko jarrerarik nabarmenenek 6,4 puntu egin dute behera 2018aren aldean: %23,4 horren alde dago 2019an, eta 2015eko mailara itzuli da ehunekoa.

% 62,3k dio harrera egin behar zaiela, baina baldintza hauekin: benetan jazartuak badira (%46,7) edo kuoten banaketa egiten bada (%15,6).

Nolanahi ere, bilakaerari erreparatuz gero, babesa edo asilo politikoa eskatzen duten pertsonak hartu behar direla uste duten pertsonen ehunekoak egonkor eutsi dio, eta goranzko joera izan du.

D) BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARREKIKO POLITIKA

Ziur asko, badakizu batzuetan iristen direla Euskadira adingabe atzerritarrak, pertsona heldu batek lagundu gabe; hau da, tutore edo arduradunik gabe. Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan? (*)



g12

(*) 2009ko Barometroan, erantzuteko aukerak hauexek izan ziren: a) haien sorlekura itzultzea, b) lagundu gabeko adingabe atzerritarrak tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea, c) nazionalitate bereko familiek har ditzaten lortzea d) autonomia-erkidego guztien artean banatzea



Euskal gizartearen gehiengoak uste du euskal administrazioek bidaiderik gabeko adingabeen ardura hartu behar dutela: %34,7 pisuak edo tutoretzapeko etxebizitzak ematearen aldekoa da, eta %46,9k, ordea, haien ardura kuotak banatu ondoren hartu behar dutela irizten dio.

Datu horiek eta 2009. urtean (galdera hori egin zeneko urte bakarrean) jasotako datuak alderatuz gero, ikusiko dugu nabarmen egin duela behera adingabeak beren jatorrizko herrialdera itzultzearen aldekoen ehunekoak, eta, aldiz, gora egin du pisuak edo tutoretzapeko etxebizitzak eman behar zaizkiela deritzoten euskal herritarren ehunekoak.

8

Tolerantzia-indizea

Tolerantzia-indizea



EAEko 2019ko Barometroko tolerantzia-indizea 60,67 puntukoa da; iazkoa baino zertxobait altuagoa da, eta, azken urteetako joerari jarraituz, euskal gizartea konfiantza berreskuratzen ari dela erakusten du.

Tolerantzia-indizearen bilakaera



BPGd-aren bilakaera EAEn



Zertxobait igo da tolerantzia-indizea, eta hori bat dator hazkunde ekonomikoaren hedapenarekin EAEn eta inguruan; horrek sendotu egiten du etorkinekiko tolerantziaren eta euskal gizarteak etorkizunera begira duen konfiantzaren eta segurtasun gehiago edo gutxiagoren arteko lotura.

Tolerantzia-indizeak, gainera, euskal gizartean iritzi publikoa zer egoeratan dagoen azaltzen du: asaldura gutxiago dago, diskurtso politikoetan ez da immigrazioa hainbeste kritikatzen, eztabaida interesatu gutxiago dago...

Euskal herritarren tolerantzia-mailaren pertzepzioa (0tik 10era)



Euskal biztanleriaren eta inkestari erantzun dieten pertsonen tolerantzia-graduari dagokionez, ikusten da puntuazioa, aurreko urteetan bezala, altuagoa dela pertsonek beren burua ebaluatzen dutenean (6,7/10) gizarte osoa ebaluatzen dutenean baino (5,8/10).

Puntuazioen bilakaera 10 arloetan, 2008-2019



2018. urtearekin alderatuz, 2019an aztertutako arlo gehienak zertxobait hobetu dira, hiru arlo izan ezik: batetik, elkarbizitzari buruz, bestetik, atzerritar jatorria duten herritarrek eskubideak eta zerbitzuak izateari buruz, eta, azkenik, harremanetarako espazioei buruz euskal herritarren iritziak jasotzen dituztenak.

Tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak, 2019

TOLERANTZIA-ATALASE TXIKIENA DUTEN PERTSONEN PROFILA	Aldagaia	Esang.	TOLERANTZIA-ATALASE HANDIENA DUTEN PERTSONEN PROFILA
Emakumezkoak	Sexua	.004	Gizonezkoak
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18-44 urte
Lehen mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Katoliko praktikanteak	Erlijioa	.000	Beste erlijio batzuk, agnostikoak, ateoak
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiar nazionalista	Abertzaletasuna	.000	Euskal abertz., euskal abertz.apalak, ezaxola
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	.000	Batez ere euskaldun eta euskal-espainiarrak
Eskuina eta zentroa	Ideologia	.000	Ezkerra
Hilean 1.000 € gehienez	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.800 € eta gehiago
Gustura ez daudenak edo ezaxola	Egoera ekonomikoa	.000	Bere egoerarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritutakoak	Lanbidea	.000	Ikasleak, aktiboak eta langabetuak
Estatus baxua	Estatusa	.000	Estatus altua
Ezkorrak	Baikortasuna	.001	Baikorrak
Aurreikuspen txarrak edo normalak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak
Immigrante asko	Auzoa	.000	Immigranterik ez, zenbait immigrante
Inolako hartu-emanik ez	Interakzio pribatua	.000	Hartu-eman handia eta nolabaitekoa
Inolako hartu-emanik ez	Interakzio publikoa	.000	Hartu-eman handia eta nolabaitekoa
Inolako hartu-emanik ez	Aisialdiko interakzioa	.000	Hartu-eman handia eta nolabaitekoa

Ez dugu estatistikoki adierazgarria den jokabide-desberdintasunik hauteman aldagai hauen arabera: habitata eta egoitza-lurraldea.

Segmentazio-zuhaitza eta euskal herritarren tipologiak



Aldagai aurresaleak:

1. Ikasketak (esang. 0.000).

2. Ideologia (esang. 0.000), Harremanak aisialdian (esang. 0.000) eta Erlijioa (esang. 0.000).

3. Etorkizuneko itxaropenak (esang. 0.000), Euskara hitz egitea (esang. 0.007), Sentimendu identitarioa (esang. 0.002) eta Harreman publikoa (esang. 0.036).

Beste urte batzuetan bezala, ereduaren iragarpen-gaitasuna mugatua da: guztizko bariantzaren %29,92 baino ezin dugu azaldu.

Euskal herritarren tipologiak

1. tipologia: Goi-mailako ikasketak, agnostikoak, ateoak... eta atzerritar jatorriko pertsonekin harreman pribatu handia: 74,64 puntu (laginaren %7,6).

2. tipologia: Bigarren mailako ikasketak eta ezkerreko ideologia: 70,58 puntu (laginaren %7,6).

3. tipologia: Goi-mailako ikasketak, agnostikoak, ateoak... eta atzerritar jatorriko pertsonekin nolabaiteko harreman pribatua edo harreman pribaturik ez: 68,27 puntu (laginaren %6,0).

4. tipologia: Bigarren mailako ikasketak, zentro-ezkerreko ideologia eta etorkizuneko itxaropen onak edo txarrak: 66,40 puntu (laginaren %8,0).

5. tipologia: Goi-mailako ikasketak eta katolikoak: 63,81 puntu (laginaren %16,6).

6. tipologia: Lehen mailako ikasketak eta atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harreman handia edo nolabaiteko harremana: 59,58 puntu (laginaren %15,8).

7. tipologia: Bigarren mailako ikasketak, eskuineko eta zentro-eskuineko ideologia eta euskaldunak: 58,69 puntu (laginaren %8,6).

8. tipologia: Bigarren mailako ikasketak, zentro-ezkerreko ideologia eta etorkizuneko itxaropen normalak: 56,29 (laginaren %6,2).

9. tipologia: Lehen mailako ikasketak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian harremanik ez eta euskal sentimendu identitarioa: 54,82 puntu (laginaren %7,8).

10. tipologia: Bigarren mailako ikasketak, eskuineko edo zentro-eskuineko ideologia eta ez-euskaldunak: 49,73 puntu (laginaren %7,2).

11. tipologia: Lehen mailako ikasketak, atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdian harremanik ez eta sentimendu identitario espainiarra edo euskaldun-espainiarra: 44,54 puntu (laginaren %8,6).

Azken pilaketa-zentroak, 2019

	Toleranteen taldea	Anbibalenteen taldea	Uzkurren taldea
Bolumenaren pertzepzioa	6,47	4,50	2,27
Arazoaren pertzepzioa	9,59	9,54	8,63
Eragina ekonomian	7,71	6,21	3,98
Eragina euskal gizartean	7,78	6,75	4,90
Immigrazio-politika	7,60	5,43	4,49
Erabateko eraginak	7,24	5,71	3,80
Elkarbizitza ereduak	4,97	3,59	2,34
Estereotipoak	7,13	4,77	2,75
Eskubideei heltzea	8,65	6,35	4,58
Harremanetarako espazioak	8,17	6,29	3,93

Aurreikus zitekeen moduan, eta aurreko urteetan gertatu izan den bezala, toleranteen taldeak puntuaziorik altuenak ditu arlo guztietan, eta, aldiz, uzkurren taldeak baxuenak arlo horietan guztietan ere.

Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)



Hiru taldeak nabarmen desberdinak dira aztertutako hamar arloetan, immigrazioa arazotzat hartzen duten arloan izan ezik; ez da desberdintasun estatistikoki esanguratsurik hautematen toleranteen eta anbibalenteen taldeen artean. Horretaz gain, uzkurren taldearen puntuazioa ere 9 puntuetatik gertu dago.

Taldeen puntuazioak Tolerantzia-indizean, 2018



Euskal gizartea hiru talde handitan sailkatzen badugu (toleranteak, anbibalenteak eta uzkurrak, aurreko urteetan egin izan dugun moduan), zera ikusten da: toleranteen taldeak 75,32 puntu lortu ditu, iaz baino ia hiru puntu gehiago; talde anbibalenteak 59,15 puntu, 2018an izandako ia puntuazio berbera; eta uzkurren taldeak 41,66 puntu, 2018an jasotako datua baino lau puntu gutxiago.

Talde handien puntuazioen bilakaera Tolerantzia-indizean, 2008-2019



Toleranteek daturik altuena dute 2008tik geroztiko seriean, eta, horrenbestez, ikuspegiak eta posizioak egonkortu dituzte.

Anbibalenteek ere puntuazio altuagoa dute Tolerantzia-indizea erregistratzen hasi ginenetik; posizioak hobetzen ari dira, eta 60 puntuetara gerturatzen.

Uzkurren taldeak ere tarteko puntuazioa du; 40 puntutik zertxobait gorago dago.

Taldeen neurria, 2019 (%)



Euskal gizartearen heren bat toleranteen taldekoa da, %41,8 anbibalenteen taldekoa, eta %23,5 uzkurren taldekoa.

Talde handien neurriaren bilakaera, 2008-2019 (%)



Toleranteen taldeak bolumena berreskuratu du eta 2017az geroztik bere posizioak finkatu ditu: pertsona tolerante gehiago dago, eta 2018an edo 2017an baino toleranteagoak dira.

Talde anbibalentearen bolumena 2008tik gaur egun arte izandakoaren oso antzekoa da; hala ere, 2019an posizioak, ikuspegiak eta iritziak hobetu ditu.

Uzkurren taldeak tarteko bolumena izan du serie historikoan (2018an, 2013an eta 2011n baino txikiagoa da, baina 2014-2017 eta 2008-2010 tarteetan baino handiagoa; interesgarria da aipatzea uzkurren ikuspegiak egonkortzeko joera duela, 40 punturen inguruan.

Talde handien ezaugarrien korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala, 2019





Talde handien ezaugarrien korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala, 2019

Ez dago aldaketa handirik hiru pertsona-taldeen bereizgarriei dagokienez:

1. **Toleranteen taldea.** Hauek dira talde honetako kideen ezaugarriak: batez ere gizonezkoak, 45 urtetik behera, goi-mailako ikasketak, euskaldunak, agnostikoak edo ateoak, ezkertiarrak, euskal abertzaletasunaren aldeko nabarmenak, euskal sentimendu identitarioa, 1.800 €-tik gorako diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik, ikasleak eta aktiboak, goi-mailako estatusa, baikorrak, etorkizuneko itxaropen onak, immigraziorik gabeko herri edo auzoetan bizi direnak, atzerritar jatorriko pertsonekin nolabaiteko harreman pribatua edo harreman pribatu handia, harreman publiko handia eta aisialdiko harreman handia.

2. **Anbibalenteen taldea.** Hauek dira talde honetako kideen ezaugarriak: lehen mailako ikasketak, katoliko ez-praktikanteak, zentro-ezkerreko eta zentro-eskuineko ideologia, euskal abertzale moderatuak, hileko 1.000 eta 1.800 € arteko diru-sarrerak, ez pozik ez haserre norberaren egoera ekonomikoarekin, erretiratuta, erdi-mailako eta behe-mailako estatusa, ez baikorrak ez ezkorrak, etorkizuneko itxaropen normalak, immigraziorik gabeko herri edo auzoetan bizi direnak, atzerritar jatorriko pertsonekin harreman pribaturik ez, nolabaiteko harreman publikoa edo aisialdiko nolabaiteko harremana.

3. **Uzkurren taldea.** Hauek dira talde honetako kideen ezaugarriak, batez ere emakumezkoak, 65 urtetik gora, lehen edo bigarren mailako ikasketak, ez-euskaldunak, katoliko praktikanteak, eskuinekoak edo zentro-eskuinekoak, nazionalista espainiarrak, sentimendu identitario espainiarra edo espainiarra bezain euskalduna, 1.000 €tik beherako diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik ez, erretiratuta edo etxea zaintzearen arduradun, behe-mailako estatusa, ezkorrak, etorkizuneko itxaropen txarrak, immigrazio handiko edo nolabaiteko immigrazioa duten herri edo auzoetan bizi direnak, atzerritar jatorriko pertsonekin harreman pribaturik, publikorik edo aisialdikorik ez.

Ondorioak

Ondorioak

Oro har, 2019ko Barometroan emaitza positiboak lortu dira, eta Ikuspegin iragarri genuen aldeko egoera finkatu da immigrazioarekiko iritzi eta jarrerei dagokienez (2015ean hasi ginen etapa hori sumatzen.) Egungo gizarte-esparruaren ezaugarri nagusiak hauek dira: krisi ekonomikoak eragin txikiagoa izatea adierazle makroekonomikoak leheneratzea, eta, horren ondorioz, gizarteak krisialdi ekonomikoa baino lehenagoko etapan zuena baino ikuspegi baikorragoa eta ez hain murriztailea izatea, immigrazioari dagokionez.

Laburpen gisa, ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

1. Immigrazioa ez da arazo bat euskal gizartearentzat. Euskal herritarren kezkak langabeziarekin, pentsioekin eta arazo ekonomikoekin daude lotuta.
2. Euskal gizartearen gehiengoak badaki immigrazioaren fenomenoa egiturazkoa dela eta datozen urteetan atzerritar jatorriko pertsona gehiago iritsiko direla.
3. Euskal herritarrek atzerritar jatorriko pertsonak iristearekiko duten tolerantzia-maila egoera makroekonomikoari lotuta dago. Aurten, tolerantzia-indizea apur bat igo da 60,67 puntura arte. Hala eta guztiz ere, euskal herritarren jarrerek krisi-garaiko erasoak jasan dituzte.
4. Euskal gizartearen kezka handienak gure ongizate-estatuarekiko mehatxuekin dute zerikusia, eta aurreiritzi eta zurrumurruetan islatzen dira. Hala eta guztiz ere, euskal herritarrek ez dute nahi babes sozialeko sistema bat bertakoentzat bakarrik, eta argi dute hezkuntza publikoa eta osasuna guztion eskubideak direla.

Ondorioak

5. Euskal gizarteak immigrazioa arautzeko eskatzen du, eta sarrera- eta bizileku-baimenak lana izatearekin edo legezko egoera administratiboan egotearekin lotzeko joera du. Era berean, etorkinek eskubide eta zerbitzu asko izateko egoera administratiboan egon behar dutela uste du. Bestalde, delituak egiteari mugatzen du kanporaketa, eta ez ditu onartzen gure araudiarekin bat ez datozen immigranteen erlijioaren eta kulturaren alderdiak.

6. 2019ko Barometroko datuek ere agerian uzten dute jatorri atzerritarreko pertsonen talde batzuk estigmatizatzen direla; batik bat, Pakistan, Errumania edo Magrebeko etorkinak, bizikidetza-egoeretan antipatiak eta susmo txarrak eragiten baitituzte.

7. Era berean, euskal herritarrek nabarmentzen dute etorkinak saiatu behar direla gehien gure ohitura eta usadioetara moldatzen, nahiz eta jakin badakiten integrazio-prozesuak bai etorkinen bai bertakoen ahalegina eskatzen duela. Esan genezake “pixkanakako asimilazio” bidezko bizikidetza-eredua dela.

8. Hiru profil hauek izaten dute atzerriko immigrazioarekiko intolerantziarik handiena:

   1) **Egoerazko xenofoboak**: gizarte-egiturako espazio berberetan lehiatzen direnak gure gizartera lan egitera etortzen diren etorkinekin;

   2) **Arrazista zaurgarriak**: objektiboki eta subjektiboki zaurgarritasun pertsonal eta sozial handiagoan dauden pertsonak, segurtasunik gabe eta mehatxupean sentitzen direnak etorkinak etortzeak aldaketak eragiten dituelako ingurunean eta ez direlako gai sentitzen edo ez dutelako uste beharrezko tresnak dituztenik aldaketa horiei aurre egiteko;

   3) **Intolerante ideologikoak**: ez dutenak onartzen ohikoak ez beste ezaugarri batzuk dituzten atzerritarrak etortzea; izaera autoritarioa eta dogmatikoa izaten dute, nolabaiteko itxikeria mentala, eta zailtasunak izaten dituzte aldaketetara moldatzeko, zurrunak baitira.

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ikus pegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de Inmigración

ikus pegi Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

BAROMETROA 2019
ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

Galdeketa-zenbakia	
Data (eguna-hilabetea-urtea)	
Udalerria	
Probintzia	
Inkestagilea	

Egun on / Arratsalde on. IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia atzerriko immigrazioarekiko euskal herritarren iritziari buruzko ikerketa egiten ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Zure erantzunak anonimatuan eta sekretupean gordeko direla bermatzen du Unibertsitateak; izan ere, erantzunak multzoan bakarrik aztertuko dira. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, ez da azterketa, immigrazioarekin zerikusia duten zenbait galderari buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu bakar-bakarrik.

1. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun **3 arazo nagusiak?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Herritarren segurtasun eza	2	2	2
Osasuna, osasun-sistema	3	3	3
Etxebizitza	4	4	4
Arazo ekonomikoak	5	5	5
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak)	6	6	6
Korrupzioa eta iruzurra	7	7	7
Pentsioak	8	8	8
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	9	9	9
Arazo sozialak	10	10	10
Immigrazioa	11	11	11
Emakumeen aurkako indarkeria	12	12	12
Hezkuntza	13	13	13
Beste erantzun batzuk	14	14	14
Bat ere ez	15	15	15
Ez daki / Ez du erantzuten	0	0	0

2. Txartel honetan ageri diren arazoetatik (1. txartela ERAKUTSI) zein dira, zure iritziz, Euskadiko **3 arazo garrantzitsuenak**? (IRAKURRI ERANTZUN GUZTIAK ozenki: 3 erantzun gehienez)

	1º	2º	3º
Delinkuentzia	1	1	1
Egoera ekonomikoa	2	2	2
Prezioen garestitzea / Inflazioa / Bizi-kostua	3	3	3
Zergak	4	4	4
Langabezia	5	5	5
Terrorismoa	6	6	6
Etxebizitza	7	7	7
Zor publikoa	8	8	8
Immigrazioa	9	9	9
Osasuna eta gizarte-segurtasuna	10	10	10
Hezkuntza-sistema	11	11	11
Pentsioak	12	12	12
Ingurumena, klima eta energiari buruzko gaiak	13	13	13
Ed/Ede	0	0	0

3. Euskadin bizi diren **jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua**, zure iritziz,… (2. txartela ERAKUTSI)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

4. Euskadin bizi diren 100 pertsone **zenbat** dira, zure ustez, **jatorri atzerritarrekoak** (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (ED/EE=99)

5. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen **%9 gutxi gorabehera jatorri atzerritarrekoak** direla, berdin pentsatzen al duzu edo… (2. txartela ERAKUTSI)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

6. Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 =erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

	EA	A	E A E K	K	EK	ED EE
a) Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du.	1	2	3	4	5	0
b) Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila	1	2	3	4	5	0
c) Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko	1	2	3	4	5	0
d) Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidali beharko lirateke.	1	2	3	4	5	0

	EA	A	E A E K	K	EK	ED EE
e) Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako.	1	2	3	4	5	0
f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke.	1	2	3	4	5	0
g) Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu	1	2	3	4	5	0
h) Immigranteek lana kentzen digute	1	2	3	4	5	0
i) Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria	1	2	3	4	5	0
j) Immigranteek ez dute integratu nahi	1	2	3	4	5	0
k) Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak.	1	2	3	4	5	0
l) Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte.	1	2	3	4	5	0
m) Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte.	1	2	3	4	5	0
n) Pertsona immigranteek ez lukete inolaz ere jaso behar diru-sarrerak bermatzeko errentarik: hemengo pertsonentzat soilik izan behar lirateke halako laguntzak.	1	2	3	4	5	0

7. 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen bizikidetzaeta harreman-giroari?

Oso txarra										**Bikaina**	**Ed**
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

8. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko **harremanak**, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?

Hobera egin du	1
Berdin jarraitzen du	2
Txarrera egin du	3
Ez daki / Ez du erantzuten	0

9. Zure ustez, zer **politika-mota** litzateke egokiena immigranteen kasurako?

Inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea	1
Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea	2
Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonei sartzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak...	3
Erabat debekatzea etorkin atzerritarrak sartzea	4
Ed/Ede	0

10. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak **erregularizatu gabeko immigranteekin**? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Guztiak erregularizatu, "paperak" eman	1
Lana dutenak bakarrik erregularizatu	2
Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko	3
Guztiak kanpora bidali	4
Ed/Ede	0

11. Eta **babesa edo asiloa** eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Mugarik gabe hartu	1
Hartu, ihesi dabiltzala egiaztatzen bada	2
Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez	3
Ez hartu, inola ere	4
Ed/Ede	0

12. Ziur asko, badakizu batzuetan iristen direla Euskadira adingabe atzerritarrak, pertsona heldu batek lagundu gabe; hau da, tutore edo arduradunik gabe. Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan? Erakutsi 4 txartela eta IRAKURRI 4 ERANTZUNAK)

Haien sorlekura itzultzea	1
Ez artatu	2
Artatu, kupo bat bete arte, eta gainerakoak autonomia-erkidegoen artean banatu	3
Lagundu gabeko adingabe atzerritarrak tutoretzapeko etxebizitzentan edo egoitzetan hartzea	4
Ed/Ede	0

13. Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAEra etortzeak bestelako janzkera-ohiturak sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke. Horretarako, zenbait irudi batzuk erakutsiko dizkizut, eta gure gizartean egokiak iruditzen zaizkizun ala ez esatea nahi nuke (5A, 5B, 5C, 5D, 5E, 5F eta 5G txartelak BANAKA ERAKUTSI)

	Egokia da	Ez da egokia	Ed/Ee
a) Kipá	1	2	0
b) Hiyab	1	2	0
c) Chador	1	2	0
d) Txilaba	1	2	0
e) Nicab	1	2	0
f) Tunika	1	2	0
g) Burka	1	2	0

14. Orain, zure eta atzerriko etorkinen arteko harreman posible batzuk aipatuko dizkizut. Mesedez, esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen (ERAKUTSI 6. txartela)

	O	S	G	Segun	Ed/Ee
a) Jatorri atzerritarreko pertsona asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea	1	2	3	4	0
b) Jatorri atzerritarreko pertsonekin lan egitea edo ikastea	1	2	3	4	0
c) Jatorri atzerritarreko pertsona bat zure laneko nagusia izatea	1	2	3	4	0
d) Zure seme-alabek jatorri atzerritarreko lagunak eramatea etxera	1	2	3	4	0
e) Seme-alabak jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea	1	2	3	4	0
f) Zure semearen/alabaren neska-laguna/mutil-laguna edo bikotekidea jatorriz atzerritarra izatea	1	2	3	4	0

15. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan **izan behar lituzkete eskubide horiek**? (irakurri eskubideak eta 7. txartela ERAKUTSI):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Seme-alabentzako hezkuntza	1	2	3	0
b) Osasun-zerbitzua	1	2	3	0
c) Gizarte-laguntza: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, GLL...	1	2	3	0
d) Babes ofizialeko etxebizitza	1	2	3	0
e) Senide gertukoenak ekartzea	1	2	3	0
f) Bozkatzeko eskubidea	1	2	3	0
g) Zerbitzu juridikoa	1	2	3	0

16. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek **doan** izan beharko lituzkete zerbitzu hauek (irakurri zerbitzuak irakurri eta 7. txartela ERAKUTSI):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Lanbide-heziketako ikastaroak	1	2	3	0
b) Gaztelaniako eskolak	1	2	3	0
c) Euskarako eskolak	1	2	3	0
d) Jatorrizko hizkuntzako eskolak	1	2	3	0

17. Pertsona batzuen iritziz, "osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehentasuna izan behar du, atzerriko immigranteen aurretik"; eta beste batzuen iritziz, berriz, "pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebehar berberak, bertakoak edo atzerriko immigranteak izan". Zuk zer iritzi duzu horri buruz?

Osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehentasuna izan behar du, atzerriko immigranteen aurretik	1
Pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebehar berberak, bertakoak edo atzerriko immigranteak izan	2
Ed/Ee	0

18. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu **atzerriko pertsonek**… (banan-banan IRAKURRI)?

	Ondo	Berdin	Gaizki	Ed
a) Haien dendak irekitzea	1	2	3	0
b) Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea	1	2	3	0
c) Jatorrizko herrialdean bezala janztea	1	2	3	0
d) Berariazko elikadura-dendak izatea	1	2	3	0
e) Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea	1	2	3	0
f) Haien ikastetxe pribatuak izatea	1	2	3	0
g) Plaza eta espazio publikoak hartzea	1	2	3	0
h) Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea	1	2	3	0

19. Txartel hau erabilita (3.t xartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1 = erabat ados; 2 = ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 = erabat kontra; 6 = ez daki):

	EA	A	EZ A EZ K	K	EK	ED
a) Euskadin bizikidetza hobetzeko, hemengoek ahalegindu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen.	1	2	3	4	5	0
b) Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.	1	2	3	4	5	0
c) Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.	1	2	3	4	5	0
d) Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik.	1	2	3	4	5	0
e) Immigranteen erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua.	1	2	3	4	5	0
f) Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino.	1	2	3	4	5	0
g) Euskadin bizikidetza hobetzeko, immigranteek gure ohiturak eta usadioak hartzen ahalegin du beharko lirateke.	1	2	3	4	5	0
h) Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute.	1	2	3	4	5	0
i) Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete.	1	2	3	4	5	0
j) Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar.	1	2	3	4	5	0
k) Europako populazioaren zahartzeak era-gindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek.	1	2	3	4	5	0
l) Bizikidetza hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegin bat, bai pertsona atzerritarrek, bai hemengoek ere.	1	2	3	4	5	0
m) Immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta gehiegi erabiltzen dituzte.	1	2	3	4	5	0

20. Esan iezadazu, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 **sinpatia** handia (9.txartela ERAKUTSI).

	Sinpatia eza										Sinpatia handia	Ed
a) Mendebaldeko Europar Batasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
b) Errumania	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
c) Brasil	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
d) Afrika beltza, Saharaz hegoaldekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
e) Bolivia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
f) Maroko, Aljeria, Magreb	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
g) Ameriketako Estatu Batuak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
h) Kolonbia, Ekuador, Peru	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
i) Argentina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
j) Pakistan, Nepal, Bangladesh	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
k) Txina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
l) Paraguai	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
m) Nikaragua, Honduras, Guatemala (Ertamerika)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

21. Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, **immigrazioak EAEn**, zure ustez, behera egingo du, gora egingo du edo oraingoa bezalakoa izango da gutxi gorabehera?

Behera egingo du	1
Berdintsua izango da	2
Gora egingo du	3
Ed/Ee	0

22. Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (EZ IRAKURRI, gehienez 3 erantzun)

	1º	2º	3º
Mendebaldeko Europa	1	1	1
Ekialdeko Europa	2	2	2
Magreb	3	3	3
Saharaz hegoaldeko Afrika	4	4	4
Latinoamerika	5	5	5
Estatu Batuak eta Kanada	6	6	6
Asia	7	7	7
Ozeania	8	8	8
Ed/Ee	9	9	9
Ns/nc	0	0	0

23. Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

	EA	A	E A E K	K	EK	ED
a) Etorkin atzerritarrak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du	1	2	3	4	5	0
b) Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da atzerriko etorkinak iristearen ondorioz	1	2	3	4	5	0
c) Immigrante atzerritarrak etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko du	1	2	3	4	5	0
d) Immigrante atzerritarrak etortzeak geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak	1	2	3	4	5	0

24. Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, **Euskadikoekin alderatuta** (banan-banan IRAKURRI)?

	Gehiago	Berdin	Gutxiago	Ed
a) adeitsuak	1	2	3	0
b) langileak	1	2	3	0
c) arduratsuak	1	2	3	0
d) matxistak	1	2	3	0
e) solidarioak	1	2	3	0
f) zintzoak	1	2	3	0

25. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki **zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien**? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Herritarren segurtasun eza	2	2	2
Osasuna, osasun-sistema	3	3	3
Etxebizitza	4	4	4
Arazo ekonomikoak	5	5	5
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak)	6	6	6
Korrupzioa eta iruzurra	7	7	7
Pentsioak	8	8	8
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	9	9	9
Arazo sozialak	10	10	10
Immigrazioa	11	11	11
Emakumeen aurkako indarkeria	12	12	12
Hezkuntza	13	13	13
Beste erantzun batzuk	14	14	14
Bat ere ez	15	15	15
Ed/Ede	0	0	0

26. Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari? (erakutsi 9. txartela) Puntua ezazu, mesedez, 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak).

Negatiboak										Positiboak	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

27. Islamarekiko sentimenduari dagokionez, EAEko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du 0tik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?

Erabateko mesfidantza										Erabateko konfiantza	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

28. Eta immigrazioarekiko tolerantzia-eskala batean, zer lekutan jarriko zenuke zeure burua, 0 "guztiz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

Guztiz intolerantea										Oso tolerantea	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

29. Eta zein lekutan jarriko zenuke euskal gizartea, 0 "guztiz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

Guztiz intolerantea										Oso tolerantea	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

30. Oro har, nolakoa zarela esango zenuke: pesimista edo optimista? 0tik 10era bitarteko eskalan (0 pesimista da, eta 10, berriz, optimista), non kokatuko zenuke zeure burua?

Pesimista										Optimista	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

31. Zer-nolako eragina ari da izaten egungo krisialdia zuregan? Eman, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa (0 eraginik ez, eta 10, eragin handia).

Eraginik ez										Eragin handia	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

32. Zure auzoko errealitate soziala laburki azaldu behar bazenu aniztasun etnikoa edo arraza-aniztasuna aintzat hartuz, zer esango zenuke? 0tik 10era bitarteko eskala batean (0k esan nahi du zure bizilagun gehienak EAEn edo Espainian jaioak direla, eta 10ek esan nahi du atzerrian jaiotako jende asko dagoela), non kokatuko zenuke zeure auzoa?

Hemengoak										Immigranteak	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

33. Pentsatu zure lanegun arrunt batean, jaikitzen zarenetik oheratzen zaren arte; zure ustez, zenbat atzerritarrekin duzu harremana zeure etxean, zure gurasoenean edo zure lagunenean? Ez naiz ari kalean ikusten dituzunei buruz, ez eta harremana beste leku batzuetan duzunei buruz ere.

34. Eta egun arrunt baten buruan, zure ustez, zenbat atzerritarrekin duzu harremana beste leku batzuetan? Ez dut esan nahi zenbat ikusten dituzun kalean, baizik eta zenbatekin izaten duzun nolabaiteko harremana lantokian, banketxean, dendetan, garraiobide publikoetan, kioskoan, tabernetan edo kafetegietan eta abarretan.

35. Zure udalerrian edo auzoan, zenbatean behin izaten duzu harremana eta/edo zenbatean behin ibiltzen zara aisialdian beste herrialde batzuetako jendearekin, atzerritarrekin (ez euskal herritarrekin eta ez espainiarrekin)? (IRAKURRI aukerak)

Inoiz ere ez	1
Zenbaitetan	2
Askotan	3
Sarri-sarri	4
Etengabe	5
Ed/Ede	0

GAIA PIXKA BAT ALDATUZ ...

P.36. Zure ustez, legeak aplikatzean, Gipuzkoan berdin tratatzen dira pertsona guztiak ala ezberdin jokatzen da aurrean dagoen pertsonaren arabera?

Pertsona guztiak berdin tratatzen dira	1
Ezberdintasunak egiten ari aurrean dagoen pertsonaren arabera	2
Ez daki / Ez du erantzun	0

P.37. Zure ustez, zer ezaugarrik ekar dezake pertsona bat modu okerragoan tratatzea? (ERANTZUN ZUZENEAN, AUKERAK IRAKURRI GABE)

	P37	P38
Emakume izatea	1	1
Gizona izatea	2	2
Atzerritarra izatea	3	3
Espainiarra izatea	4	4
Ijito etniakoa izatea	5	5
Gaztea izatea	6	6
Adinekoa izatea	7	7
Katolikoa izatea	8	8
Musulmana, judutarra edo beste erlijio batekoa izatea	9	9
Homosexuala izatea	10	10
Transexuala izatea	11	11
Heterosexuala izatea	12	12
Baliabide ekonomiko gutxikoa izatea	13	13
Desgaitasun fisikoren bat izatea	14	14
Desgaitasun intelektualen bat izatea	15	15
Buruko desgaitasunen bat izatea	16	16
Langabea izatea	17	17
Beste ezaugarri pertsonalen bat. Zein?	18	18
Ez daki / Ez du erantzun	0	0

P.38. Zure ustez, zer ezaugarrik ekar dezake pertsona bat modu okerragoan tratatzea? Mesedez, aipatu eragina izan dezaketen ezaugarri guztiak, eragin txikia bada ere. (ERAKUTSI A TXARTELA. MARKATU ELKARRIZKETATUAK AIPATZEN DITUEN GUZTIAK).

P.39. Batzuen ustez, Gipuzkoako herritarrek baztertu egiten dituzte ijitoak. Zein neurritaraino zaude ados? (ERAKUTSI 3 TXARTELA). 1. Oso ados. 2. Ados. 3. Ez ados ez aurka ere. 4. Ez ados. 5. Batere ados. 0. ED/EE.

	OA	A	Ez A Ez A	EA	BA	ED / EE
Gipuzkoako herritarrek baztertu egiten dituzte ijitoak	1	2	3	4	5	0

P.40. Beste batzuen ustez, ordea, ijitoek ez dute integratu nahi. Zenbateraino zaude ados baieztapen horrekin? (ERAKUTSI 3 TXARTELA). 1. Oso ados. 2. Ados. 3. Ez ados ez aurka ere. 4. Ez ados. 5. Batere ados.

	OA	A	Ez A Ez A	EA	BA	ED / EE
Ijitoek ez dute integratu nahi.	1	2	3	4	5	0

P.41. Zure ustez ijitoak baztertu egiten dira arlo/leku hauetan? (ERAKUTSI B TXARTELA). 1. Asko. 2. Nahikoa. 3. Zerbait. 4. Gutxi. 5. Batere ez. 0. ED/EE.

	A	N	Z	G	BE	ED / EE
Lan-arloa	1	2	3	4	5	0
Hezkuntza-arloa	1	2	3	4	5	0
Osasun-arloa	1	2	3	4	5	0
Zerbitzu publikoetarako sarbidea	1	2	3	4	5	0
Kirol-ikuskizunetarako sarbidea	1	2	3	4	5	0
Espazio publikoen erabilera (plazak, kaleak)	1	2	3	4	5	0
Beren auzoa edo etxebizitza						
Poliziaren tratua	1	2	3	4	5	0
Gizartean eta politikan parte hartzea	1	2	3	4	5	0
Garraio publikoa	1	2	3	4	5	0

P.42. Zure eta ijitoen artean egon litezkeen hainbat harreman aipatuko dizkizut. Mesedez, esan kasu bakoitzean onartu, saihestu edo ukatu egingo zenukeen harremana (ERAKUTSI 6 TXARTELA).

	O	S	U	ED/EE
a) Ijito asko bizi diren auzo edo etxe-multzoan bizitzea	1	2	3	0
b) Ijitoekin lan egin edo ikastea	1	2	3	0
c) Zure seme-alabek lagun ijitoak eramatea etxera	1	2	3	0
d) Zure seme-alabek ijito bat bikotekide izatea	1	2	3	0
e) Zure seme-alabak ijitoen seme-alaba ugari joaten diren ikastetxe batera eramatea	1	2	3	0

P.43. Amaitzeko, esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo esaldietan esaten denarekin (ERAKUTSI 3 TXARTELA). 1. Oso ados. 2. Ados 3. Ez ados ez aurka ere 4. Ez ados. 5. Batere ados.

	OA	A	Ez A Ez A	EA	BA	ED/ EE
a) Ijitoen kulturak eta ohiturek talka egiten dute oro har euskal gizartearen kultura eta ohiturekin	1	2	3	4	5	0
b) Ijitoek gure eskubide berak dituzte	1	2	3	4	5	0
c) Ijitoak dauden lekuetan, delinkuentzia-mailak gora egiten du	1	2	3	4	5	0
d) Ijitoak gizarte-laguntzetatik bizi dira	1	2	3	4	5	0
e) Ijito gehienak behar bezala integratzen dira	1	2	3	4	5	0
f) Ijitoen kulturak eta ohiturek gure kultura aberasten dute oro har	1	2	3	4	5	0

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK

A. Inkesta bete duen pertsonaren **sexua**

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2

B. Esango didazu zenbat **urte** bete dituzun azken urtebetetzean?

C. Habitat:

5.000 biztanle edo gutxiago	1
5.001 - 20.000 biztanle	2
20.001 - 150.000 biztanle	3
Hiriburua	4
Ed/Ede	0

D. Euskara badakizu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

E. Esango didazu amaitu duzun ikasketa-maila gorena zein den?

Ikasketarik ez, oinarrizko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarrizko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikasketa ertainak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

F. Erlijioaren arloan, nola definitzen duzu zure burua?:

Katoliko elizkoia	1
Katoliko ez-elizkoia	2
Beste erlijio bat	3
Agnostikoa, ateoa, neutroa	4
Ed/Ede	0

G. Esango zenidake, mesedez, zure etxean hilean, gutxi gorabehera, zenbateko sarrera garbia izaten duzuen, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Erreparatu, ez dizudala kopuru zehatza eskatzen, kopurutarte hauetako bat aukeratu behar baituzu (erakutsi 10. txartela):

1.000 € baino gutxiago (166.000 pezeta inguru)	1
1.001 eta 1.800 € artean (166.000 eta 300.000 pezeta artean.)	2
1.801 eta 2.500 € artean (300.000 eta 415.000 pezeta artean)	3
2.500 € baino gehiago (415.000 pezeta baino gehiago)	4
Ed/Ede	0

H. Oro har, zenbateraino zaude gustura zure etxeko **egoera ekonomikoarekin**? Mesedez, adierazi 0tik 10era bitarteko eskala batean, non 0 erabat asegabea den eta 10 erabat gustura.

Erabat asegabea										**Erabat gustura**	**Ed**
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

I. Ekonomia-jarduerari dagokionez, zein da egoera une honetan?

Lanean, autonomoa edo soldatapekoa	1	**J galdera:** Zein izan da edo da lanbidea edo jarduera?
Erretiratua, pentsionista, errentaduna	2	
Langabezian, lan bila	3	
Etxekoandrea	4	**J galdera:** Zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonaren lanbidea edo jarduera zein da? eta K galderako ikasketak?
Ikaslea	5	
Ed/Ede	0	**J galdera:** 0

J: LANBIDEA EDO JARDUERA	**Egungo jarduera**	**Aurreko jarduera**
BERE KONTURAKO LANGILEA		
1.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen txikian (langile finko 1 baino gehiago ez)	1	1
2.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen handian (langile finkoak izan ditzake, edo ez)	2	2
3.J: Autonomoa (langilerik gabe)	3	3
4.J: Negozio txikiko enpresaburua (1etik 5era arteko langile finkoak edo behin-behinekoak)	4	4
5.J: Negozio handiko enpresaburua (6 langile edo gehiago, finkoak edo behin-behinekoak)	5	5
6.J: Bere konturako langilea, langilerik gabe edo 6 langile baino gutxiago (haien jarduera garatzeko, profesional horiek maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, etab.)	6	6
BESTEREN KONTURAKO LANGILEA (Sektore pribatua edo publikoa):		
7.J: 6 langile baino gutxiagoren arduraduna	7	7
8.J: 6 langile edo gehiagoren arduraduna	8	8
9.J: Langile profesionala (haien jarduera garatzeko, maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, Irakaslea, Maisu/maistra, etab.)	9	9
10.J:Aginte ertaina (departamentuburua, atalburua, bulegoburua, langilezaina, arduraduna, etab.)	10	10
11.J: Bestelako langileak, batik bat bulego-eginkizunak dituztenak (ez profesionalak, ez zuzendariak, ez aginte ertainekoak: Idazkariak, Laguntzaileak, Kontulariak.)	11	11
12.J: Bestelako langileak, batik bat bulegoz kanpoko eginkizunak dituztenak (saltzaileak, merkataritza-ordezkariak, dendariak, tabernariak, banatzaileak, postariak, etab.)	12	12
13.J: Eskulangile kualifikatua (lanbideari begira, lanbibe-prestakuntza edo ikasketa praktikoak izan dituztenak: tailer-maisuak, tailer-ofizialak, etab.)	13	13
14.J: Eskulangile ez-kualifikatua (peoiak, langile ez-kualifikatuak.)	14	14
EZ DUTE LAN EGITEN		
15.J: Erretiratua/Pentsionista/Errentaduna eta lan egiten ez duten bestelakoak	15	
16.J: Langabetua (3 hilabete baino gehiago langabezian)	16	
Langabetua (3 hilabete baino gutxiago langabezian)	17	
ZEIN ZEN PERTSONA HORREN AZKEN LANBIDEA EDO JARDUERA? **(idatzi eta sailkatu aurreko jardueraren batean, bigarren zutabean)**		

K. BAKARRIK etxekoandreak eta ikasleak: Zer ikasketa-maila du zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonak?

Ikasketarik ez, oinarrizko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarrizko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikasketa ertainak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

L. Politikari buruz hitz egiten denean, normalean, **ezkerra eta eskuina** hitzak erabiltzen dira. Txartel honetan (11. TXARTELA), zenbait lauki ageri dira, ezker muturretik (0) eskuin muturrera (10) sailkatuta. Zein laukitan kokatuko zenuke zure burua?

Ezker muturra										**Eskuin muturra**	**Ed**
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

M. Politikari buruz ari garela, Euskadiri eta euskalgintzari erreferentzia egiten diogunean, askotan, **espainolismoaz** (nazionalismo espainiarra) eta **euskal nazionalismoaz** hitz egiten da. Esango zenidake, mesedez, non kokatuko zenukeen zure burua 0tik (gehienezko euskal nazionalismoa) 10era (gehienezko espainolismoa) bitarteko eskala honetan?

Euskal nazionalismoa										**Espainolismoa**	**Ed**
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

O. Jarraian dituzun esaldi horietatik, zein esaldik adierazten ditu ondoen zure sentimenduak? (guztiak IRAKURRI)

Espainola bakarrik sentitzen naiz	1
Euskalduna baino espainolagoa sentitzen naiz	2
Euskaldun bezain espainol sentitzen naiz	3
Espainola baino euskaldunagoa sentitzen naiz	4
Euskalduna bakarrik sentitzen naiz	5
Ed/Ede	0

Izena: _____

Telefonoa: _____

Udalerria: _____

ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA.